

24.zk  
2006

# IDEA 24

## ESKOLARRA

NAFARROAKO ESKOLA  
KONTSEILUA

## ESKOLAKO ELKARBIZITZA

### EDITORIALA

#### **Ikastetxeetako elkarbizitza**

Rita Maeztu Rodrigoren eskutik, Nafarroako Hezkuntza Saileko Elkarbizitza-arloko aholkularia

### PERTSONAK

#### **Eskolako justizia**

Juan Manuel Fernández Martínezen eskutik, Nafarroako Justizia Auzitegi Nagusiko lehendakaria

#### **Elkarbizitza-hezkuntza ematea: indarkeria prebenitzeko bide bikaina**

Rosario Ortega Ruizen eskutik, Kordobako Unibertsitateko Psikologian katedraduna

### FOROA

#### **Autoritatea eta diziplina ikasgelan**

Eduardo López López jaunaren txostenaren laburpena, Javier Marcotegui jaunak, Nafarroako Eskola Kontseiluko presidentek, egina

#### **Ikastetxeetako elkarbizitza hobetzeko plan orokorra**

Rita Maeztu Rodrigo andrearen eskutik, Nafarroako Hezkuntza Saileko Elkarbizitza-arloko aholkularia

#### **Ikastetxeko elkarbizitza**

Manuel Campillo Meseguerren eskutik, "Benjamín de Tudela" BHIko filosofiako irakaslea eta zuzendaria

#### **Ikastetxeetako elkarbizitza. Aita baten hausnarketak**

Antonio Rodríguez Frailek sinatua

#### **Urmaelaren hondotik**

Jesús Gallego Herranzen eskutik, Puente la Reina eskutik, Puente Centroko hezitzailea eta zuzendaria

### IKASGELA

#### **Lana Burlatako profesional sarean haur eta nerabeei tratu ona ematea sustatzeko**

Marisa Etxeberria, Burlatako Profesional Sarearen izenean

#### **Ikastetxeetan dagoen berdinen arteko bitartekotza**

M<sup>o</sup> Jesús Barberren eskutik, Iruñako "Plaza de la Cruz" BHIko zuzendaria

#### **Elkarbizitzarako, errespeturako, bitartekotza: tresna, baliabidea, ahalmena**

Kiran Bhatti, Biurdana ikastetxeko bitartekaria

#### **"Ave María" ikastetxe publikoa. Iruña. Esperientzia inklusiboa. MEC 2005-06ko lehenengo sari nazionala**

Javier Morenoren eskutik, Iruñako "Ave María" ikastetxe publikoko zuzendaria

PRENTSA ALBISTEAK  
BIBLIOGRAFIA  
ARAUDIAREN AIPAMENA



**IKASTETXEETAKO ELKARBIZITZA****Rita Maeztu Rodrigoren eskutik****Nafarroako Hezkuntza Saileko Elkarbizitza-ar-  
loko aholkularia**

Gure gizartean, ikastetxeetako elkarbizitzaren inguruko interesa eta ardura areagotu egin da, gatazken ondorioz elkarbizitza hori aztoratuta baitago. Izan ere, egoera horien ondorek hezkuntza-erkidegoko kideengan eragin nabarmena izan dute.



Rita Maeztu Rodrigo

Horrela, helduen eta gazteen arteko harremanetan gertatutako aldaketek, dela gizarte-eremuan dela familian, eskolako eremuan zuzeneko eragina izan dute. Agintaritzan, errespetuan eta gizarte-aintzatespenean oinarritutako harreman-ereduetatik bestelako gatazka-mota berri eta konplexuetara iragan dira.

Familia antolatzekeo eredu dela medio, denbora gabeziagatik, seme-alabei jarritako arreta urriagatik eta erantzukizunaren erlatibismoagatik nabarmentzen dena, oso zaila da mugak ezarri eta elkarbizitza irakastea. Gizarteratzeko lehenengo oinarria familian eskuratzen da. Beraz, agintaritzak funtsezko erantzukizuna du, bereziki, arauak modu koherentean eta iraunkorrean ezartzeko.

Ikastetxeetan hezkuntza-erkidegoa eratzen duten talde ezberdinen arteko harremanak garatzeko elkarbizitza-esparrua sortu da. Ondorenez, harreman horiek elkarbizitzaren nahiz ikaskuntzaren gain eragin esanguratsua dute. Halere, pertsona arteko harremanak eta ikaskuntza pertsonak ukitzen dituen elkarbizitza-esparru ezberdinen ondorioz sortzen dira.

Elkarbizitzaren eraketa dugu hizpide. Zeregin konplexua da. Horretarako, eskola-jardueraren bi plano ezberdin aztertu behar dira: bata, irakaskuntza-ikaskuntza, eta, bestetik, pertsona arteko harremanak. Ikuspuntu hori aintzat hartuta, esan beharra dago irakaskuntza eta ikaskuntza ez direla jarduera teknikoak, ezpada pertsona arteko harremanen sarea euskarri duten prestakuntzarako elkarreaginezko prozesuak, hain zuzen ere, irakaslea/ikaslearen arteko harremanak edo ikaskuntza-esparrua, irakasleen arteko harremanak edo irakaskuntzaren plangintza-esparrua, berdinen arteko harremanak edo ezagutza-esparrua edo elkarbanatutako balioak.

Zeregin hori aurrera eramateko beharrezkoa da hezkuntza-erkidego osoak elkarbizitza orokorraren nahiz ikastetxeetan sortzen diren pertsona arteko harremanen azterketan esku hartzea. Hortaz, irakasle-taldeak jokabide aktiboa duela erakutsi behar da aldaketa-egitasmoari dagokionez, hots, diseinatutako jardueren unitatea talde-ikasgela izango da, eta, irakasleen/talde-ikasgelaren arteko elkarreagin aldaketa-prozesuen agertokia izango da.

Ikasgeletan dagoen disrupzioa, bereziki, Bigarren Hezkuntzako ikastetxeetan, etapa horretako irakasleen kezkarik handiena da. Izatez, ikaskuntza atzeratzen duten portaera desegokien multzoa da eta ikasgelan egoera ezegokiak sortzen dira, pertsona arteko harreman txarrak sustatuz, bai irakasleen eta ikasleen artean bai ikasleen artean, eta, sarritan, irakasleen artean. Ikastetxearen barruko harreman-mota horietan hainbat faktorek eragiten dute, esaterako, **ikasgelako giroak, curriculum-proposamenek, ikasgela maneiatzeko estrategiek, ikasleen motibazioak eta familia-nahiz gizarte-esparruek.**

Horrez gain, ikaskideen arteko larderia eta jazarpena ere ikastetxeetan konpondu beharreko arazo larria dugu. "Isiltasunaren legea" eta pertsona arteko harremanak ulertzeko modu desegokia dela eta, berdintasun-printzipioa eta taldean parte hartzeko printzipioa galtzen ari dira.

Hori guztia kontuan hartuta, ikasleek pertsona arteko harreman txarrekin zerikusia duten arazoak izateko prozesuak aztertu eta ezagutu behar dituzte. Ez dira errudunak aurkitu behar. Gatazka eta aurreneurriak zehazteko beharrezkoa den esku-hartzea aztertu behar da. Irakasleen ekintza hezigarria eta antolatzailea aldatu behar da, batez ere, indarkeria kaltegarria dela adierazten duten zuzeneko nahiz zeharkako ekintzak garatu daitezken.

Beharbada, gatazka horiek konpontzeko gakoak ez daude bakarrik ikasleen eskuetan. Horrez gain, **erabakia hartzeko elkarbanatutako erantzukizunaren** proposamenarekin bat etortzeko egitasmoak garatzeko ahaleginak egin behar dira.

Izan ere, ikasleen adimenaren eta gizarte-harremanen ikaskuntza errazteko giroa ez da lortzen legerian zehaztutakoa aplikatuta bakarrik (ikasleen eskubideak eta betebeharrak, Barruko Araubidearen erregelamendua...). Ikastetxe batzuetan, gatazken antolaketa eta horiei aurre egiteko modua kontuan hartzen dituzten prebentzio-planak ere abian jarri dira. Ikuspegi hori dela bide, gatazka hezkuntzaren osagaia da, eta bertan esku hartzen duten guztiek arazoak negoziatu eta konpontzeko aukera izango dute.

UNESCOren Delors txostenean ezarritakoaren arabera, familiak hezkuntza ematen du, eskolak prestatu egiten du eta gizarteak modelatu egiten du, hau da, familiak pertsona hazteko balioak igortzen ditu, eskolak prestakuntza ematen du ezagutu, egin eta izaten ikasi dezaten, eta gizarteak ikaskuntza nahiz prestakuntza hori modelatzen du, onargarria mugatzen duten printzipio demokratikoekin bat datozen ereduak eskainiz.

Hezkuntza emateko zeregina inoiz ez da erraza izan. Horrenbestez, erantzukizuna hezkuntza-eragile guztien artean banatu behar da: familia, gizarte eta ikastetxea. Horrela, hurrengo ekintzak sustatzen dituzten taldeko lanen ildoak ezarri behar dira:

- Familiak Elkarbizitzarako Planak abian jartzeko lankidetzeta eta jarduketa-ildo koherenteen araberako prestakuntzan parte hartu behar dute.
- Errespetua eta tolerantzia bezalako balio demokratikoetan oinarritutako hezkuntza aurrera emateko gizarte-laguntza izan behar dute.

## Editoriala

- Irakasleek gatazkak konpontzeko prestakuntza izan behar dute, batez ere, Barruko Araubidearen Erregelamendua ezartzeaz gain, beste aukera batzuk proposatzeko xedearekin.

## Pertsonak

### ESKOLAKO JUSTIZIA

**Juan Manuel Fernández Martínezen eskutik Nafarroako Justizia Auzitegi Nagusiko lehendakaria**

Azken urteetan, gazte-delinkuentzia Nafarroako gizartean dagoen kezka larrienetakoa dugu. Bada, hezkuntza-erantzukizuna nahiz erantzukizun judizialak ditugunon artean egonezin nabaria sortzen da, alde batetik, ezohiko indarkerian oinarritutako portaera horien jatorria zehazteko zailtasunarengatik, eta, bestetik, zehapen-izaera galdu gabe, adingabea gizartean parte hartzea bideratzea ahalbidetzen duten neurri zuzentzaileak hartzeko zailtasunarengatik. Bestalde, portaera bortitzen esparru orokor horretan, zoritxarrez **bullying** bezala ezagutzen den jarduerak gero eta garrantzi handiagoa du, eskola-jazarpenak, bederen. Jarduera hori ikastetxeetan gertatzen da eta egileek nagusitasun nabarmenarekin jokatzen dute. Hain justu ere, pasadizo batzuetan amaiera tragikoak gertatu izan dira, eta, askotan, biktimengan arazo psikikoak eragiten dira.

Azalpen honen arabera, nire lanbide-ikuspuntutik, ikuspuntu judizialek, hain zuzen, arazo horri buruzko ohar batzuk egin nahi ditut, betiere, mota horietako arazoan aurrean aita naizela ahaztu gabe. Nire ustez, abiapuntu gisa, kontuan hartu behar dugu gure antolamendu juridikoan, mendebaldeko legeria konparatuaren ildotik, hemezortzi urtetik behera dituen adingabeak eskubideak dituela. Hori dela bide, adin hori bete arte jarduteko gaitasun osoa ez izan arren, aukera ezberdinak dituzte, bai eta bere gain eragina duten erabakiak hartzeko unean entzuna izatekoa ere, baldin eta horretarako gutxienez bereizketa-gaitasuna badu. Horrek guztiak XX. mendearen amaieratik Espainian eta herri garatu egiten haurtzarora babesteko indarreko arauketaren egitura aldatu du. Izan ere, oinarri-oinarrian adingabeen eskubideen titulartasun osoa aintzatetsiko da, eta eskubideok pixkanaka-pixkanaka egikaritzeko eskubidea egikaritzeko dira. Izatez, Konstituzioan haurtzarora babesteko betebeharra jaso denez gero, gizartearen eta antolamendu juridikoaren ikuspuntutik hori behar bezala bermatzeko beharrezkoa da subjektuen autonomia sustatzea. Hori dela medio, euren egoera pertsonalari nahiz etorkizunaren egoerari buruzko kontrol-hautematea apur-



Juan Manuel Fernández Martínez

Ikastetxeak ildo horretan murgilduta daude; hain zuzen ere, taldeko hausnarketa egingo dute hezkuntzarako praktika egokiak identifikatu eta elkarbanatu ditzaten.

ka eratzeko aukera egotea nahi da. Adingabearen inguruan egindako aintzatespen horren arabera, beste ideia batzuen artean, semearen edo alabaren gain eta bere nortasunari buruzko eskubideen nahiz ondasunen gain xedatze-ahalmenik ez dagoela adierazi behar da, eta adingabeekin zerikusia duten arazoak jorratzean, paternalismoaren ideiak izaera subsidiarioa izango du.

Hortaz, bereizketa-gaitasun naturala garrantzi berezia duen arazoa da, bereziki, *conditio sine qua non* da eskubideak dituzten subjektuen autonomiarri buruz hitz eginen denean. Aldi berean, badirudi aipatu bereizketa-gaitasun naturala puntu hauek kontuan hartuta aztertu behar dela: adingabeak xedatzea egikaritzeko dituen eskubideen izaera eta xedatze horrek adingabe horri begira etorkizunean sor ditzakeen ondorioak. Ondorenez, adingabeek dituzten eskubideen egikaritzea mugatu ahal izango da horiek egikaritzeko borondatea etorkizuneko bestelako interes nagusien aurka agertzen denean.

Funtsezkoa da gurasoen eta hezitzaileen zeregina azpimarratzea, betiere esparru eta intentsitate ezberdinak aintzat hartuta. Hori dela medio, seme-alaben nahiz ikaslearen hezkuntza eta prestakuntza bermatzeko oinarritzko eginkizuna betetzen dute. Egin behar hori zentzuz eta arduratsu burutzeko, beharrezkoa izango da **agintaritzea** egokia egotea, batik bat, hori eragingarria izan dadin, eta, ondorioz, adingabearen eskubideen egikaritzea mugatu dadin. Halaber, alderdi horrek garrantzi handia badu ere, egunean-egunean ikus dezakegu, zoritxarrez agintaritzea erabat galduta erakusten duten hainbat gertaera, dela etxean dela irakaskuntza-arloan. Oro har, agintaritzea adingabea eskubidearen subjektu gisa aitortu eta gizarteak horri ematen dion garrantziarekin liskarrean agertu beharrean, horren gotorleku nagusia da.

Zehaztapen horiek egin ondoren, gaineratik bada ere, gazte-delinkuentzia, edo, zehaztasunez, eskola-jazarpena jorratuko dugu. Mendekuaren ikuspuntutik, zigor-erantzun bera aplikatuko da, egilearen adina kontuan hartu gabe. Gazte-delinkuentzia, batzuetan haur-delinkuentzia barne izanda, arazo larria izan daiteke, eta, jadanik gure artean ageri da, baina hori konpontzeko zigor-intentsitate berezia duten erantzunak bakarrik ematen badira, berriro hezkuntza emateko aukera baztertua, arazoa areagotu besterik ez da egingo. Zalantzarik gabe, herritarrek segurtasuna izateko eskubidea dute, eta, beraz, legitimoak dira jasotzen dituzten erasoaren aurkako protestak, hala-koak adingabeek egiten badituzte ere. Gainera, botere publikoek portaera horiei zehapena ezartzeko beharrezkoak diren mekanismoak abian jarri behar dituzte.

Bada, adingabearen interesa gai horren inguruko zigor-politika arautzen duen printzipioa dela baieztatzen badugu ere, horrek okerreko bidea har dezake, batik bat, ikuspuntu horren norabidea aldatzean. Izatez, irakasleek euren lana betetzeko egoerari buruzko gogoeta egin behar dute, horiei ematen diegun babes urria edo babesik eza kontuan izanda. Printzipio gidari hori eragingarria

izateko, hezkuntza-erkidego osasuntsua eta indartsua behar da, eta irakasleek beldurrik gabe jokatu behar dute egunero jasoko dituzten erasoen aurka. Adingabeak behar bezala prestatzeko ezinbestekoak diren ezagutzak igortzeko, bai zientifikoak bai humanistak, aurretiaz agintaritzaren moralaren joera zehaztu behar da, despotismoarekin bat ez datorrena eta horren mende ez dagoena. Kasu horretan, ikasleek eta ezin izango dute hori eztabaidatu, ezta gurasoek ere. Halere, arazoak aurretik sortzen badira, hau da, etxean, batzuetan nagikeriarengatik, arduragabekeriarengatik, edo, seme-alaben aurka egitearen ondorioz sortzen den beldurrengatik, orokorrean, benetan gaitasunik gabeko pertsonak bihurtzen dira, adimenari nahiz afektibitateari dagokienez.

Laburbilduz, jokabide horien judizializazioa zenbait kasutan ezinbestekoa izan arren, portaera horien larritasuna dela-eta Estatuaren *ius puniendi* ezarriz, hutsegite nabarmena izango litzateke horren arabera soilik konpontzea. Ezin dut ahaztu adingabeek egindako arau-hausteen ondorioz, gizartearen kezka handia sortzen ari dela eta adingabeen erantzukizun penala arautzen duen legearen sinesgarritasuna bertan behera geratu dela, horiek egunerokotasunean burutzen dituzten arau-haustek zigortu gabe geratzeagatik. Hala ere, nire ustez zigorra areagotzeak ez du arazoaren konponketa ekarriko. Hori prebentzio-politiken bidez soilik egin ahal izango da, gurasoen eta irakasleen laguntzarekin. Justizia ere lagungarria da zeregin horretan, eta, horretarako, *Educando en Justicia* (Justiziari buruzko hezkuntza ematea) programa jarri da abian. Ekimen horren bitartez, ikasleei joko demokratikoan dauden erregelak (jokoa eta kirolean egiten den bezala) irakasteaz gain, ikasleek Zuzenbideko Estatuan, elkarrizketan eta komunikazioan oinarritzen diren printzipio demokratikoei zor zaien errespetua bezalako balioak irakatsi nahi zaizkie, batik bat, horien bidez gatazkak konpon ditzaten. Horrez gain, beste balio batzuk irakatsiko zaizkie, hala nola, adiskidetasuna, solidaritatea, zintotasuna eta gainerakoei zor zaien errespetua, horien sexua, naziotasuna, kultura, arraza edo erlijioa kontuan hartu gabe.

## ELKARBIZITZA-HEZKUNTZA EMATEA: INDARKERIA PREBENITZEKO BIDE BIKAINA

*Rosario Ortega Ruizen eskutik*

**Kordobako Unibertsitateko Psikologian katedraduna<sup>1</sup>**

### Sarrera

Espainiako eskolako indarkeriari buruzko ikerketan, Europako herri gehienetan gertatzen den bezala, eskola-jazarpenari, mehatxuei, abusuari, eta, orokorrean, tratatu txarrei arreta berezia jarri zaie. Hala ere, hezkuntza-erkidegoak eskolan gertatzen den arazo horren eta gizarteko gainerako arazoari aurre egiteko hartu dituen ekimenen ibilbidea zehatza izan da. Izan ere, ez da aztertu tratatu txarren arazoa bakarrik, beste herrietan gertatzen den bezala, ezpada elkarbizitzako foru ezberdinetan agerian utzitakoaren arabera, indarkeria prebentize-



Rosario Ortega Ruiz

(Ortega, 1992, 1994 eta 1997) bezala ezagututakoekin, bederen. Esperientzia horiek abiapuntu hartuta, arazo horren ondorioz ukituta geratzen diren faktore eta giza sistema guztiak kontuan izatea ahalbidetzen duten abordatze-moduak proposatu genituen.

*SAVE (Proyecto Sevilla Anti-Violencia Escolar)*, ikerketa aplikatuaren egitasmoa izan zen. Egitasmo horien bitartez, hiru ikasturtetan zehar esku hartzeko programa zabalatu eta ezarri zen, eta emaitza positiboak lortu ziren, biktimizazioa gutxitu egin zen eta.

Ostean, Andaluziako Hezkuntza Sailburutzak kideen arteko tratatu txarra prebentzeko programa instituzionala garatzeko lankidetzara eta euskarri zientifiko-teknikoa eskatzean, 1997-2001 urte bitartean aurrera eramango zena, eta Europan (Ortega, 2001; Ortega, Del Rey eta Fernández, 2003) *ANDAVE (Andalucía Anti-Violencia Escolar)* bezala ezagututakoa, aurretik aipatu printzipioak berriro aplikatu genituen, oraingoan programa eta ekimen zabalago eta irekiagoekin, esaterako, irakasleak prestatzeko ildo instituzionalak, irakaskuntzako ekimenen alde egiteko pakete didaktikoen diseinua eta banaketa, laguntza eta orientabidea behar duten haurrei, irakasleei eta familiei laguntzeko telefonoaren sorrera eta ezarpena, arazoaren ikerketa eta ebaluazioa baztertu gabe. *ANDAVE* egitasmoa politika orokorraren (*whole-policy*) ereduak aurkeztutako parametroen arabera diseinatu eta bete zen, bereziki, eskolako gatazkak eta indarkeria hobetzeko bide egokiena dela egiaztatuta.

Gure ustez, elkarbizitza-hezkuntza ikastetxeetan, institutuetan, eta, orokorrean, hezkuntza-erkidegoetan egindako esfortzuetan eta hezkuntza-administrazioek ikastetxetako gizarte-harremanak hobetu eta eskolako gatazkak nahiz indarkeria saihesteko abian jarritako programa eta ekimen formaletan ageri den oldar egiteko biderik garrantzitsuena eta ezagunena dugu. Zernahi gisaz, egin-kizun horretan ez gara bakarrik aritu. Azken hamar urtetan, autonomia-erkidegoen gobernuetan, eta, sarritan, hezkuntza-administrazioen erantzukizunpean (ikus Ortega eta Mora-Merchán, 2005) hezkuntzak esku hartzeko ereduak eratu da, eta horrek ez du izango izaera aringarria, aurreneurritzeko izaera baizik. Eredu horren interesa eta originaltasuna guztiona eta propioa dela esan behar dugu. Hain zuzen ere, eskolako gatazkari eta indarkeriari aurre egiteko nazioko ereduaren (Ortega eta Martín, 2003) ezaugarriak adierazgarrienak identifikatzen ditu.

<sup>1</sup> ortegaruz@uco.es

### Elkarbizitza eraikitzea indarkeria prebenitzeko

Elkarbizitzak egunero elkarrekin bizitzea esanahi du. Hala ere, gure kultura-ondarearen bidez hainbat ñabardura gehitzen dizkiogu, gutxi gorabehera gizartearekin zerikusia dutenak, eta, praktikan, pertsona arteko eta gizarteko harremanen egora bikaina lortzeko gizarte-bilbe konplexuaren adierazpena bihurtu da. Gure kasuan, eskolako hezkuntzaren jarduerak eta praktika garatzeko klima egokia da. Gehitutako ñabardurak bizitzaren gizarte-esparru ezberdinetan agertzen direnez gero, kasu honetan, hezkuntzari eta adierazpen horren erabilerari begira garrantzia dutenak bakarrik azalduko ditugu.

Elkarbizitza hitza adieraztean, ez du esanahi pertsona multzo batek etxebizitza edo toki fisikoa soilik elkarbanatzea. Kasu horretan, espazio hori elkarbanatzen dutenek, arrazoi, agertoki eta jarduerak ezberdinak direla medio, hitzarmen- eta arau-sistema ere elkarbanatzeko ahaleginak egin behar dituzte, batik bat, bizimodua ahalik eta egokiena izan dadin, edo, gutxienez, gatazka handirik egon ez dadin. Horretarako, beharrezkoa da bakoitzak bere interesak kontrolatu eta gainerako interesak uler ditzan. Izatez, elkarbizitza kontzeptuak ondasun erkide bat barneratzen du, errespetua, hain zuzen. Horrek gatazkak hitz eginez eta modu zuzenean konponetzea ekarriko du.

Elkarbizitza hitzak eskubideak eta betebeharrak elkarbanatzeko esfortzuarekin zerikusia duen dimentsioa du, gure gizartea nahiz pertsona arteko harremanak hobeto ulertu eta horiek behar bezala errespetatzeko. Helburu horretarako, eskubide eta betebeharrak oinarritzeko hezkuntzaren edukian jaso behar dira. Gisa bertsuan, elkarbizitza kontzeptuak dimentsio psikologikoa du eta horik hezkuntza-dimentsioa zuzenean azaleratuko da. *Elkarbizitza* kontzeptuak gainerakoekin behar bezalako harremanak izateko sentimenduei eta emozioei buruzko azterketa egitea ahalbidetzen du. Hain zuzen ere, emoziozko enpatia sentimenduak eta ezagutzaren sentimenduak dira, eta horiek eskuratzeko, ikaskuntzak eta garapenak loturari, elkarrekikotasun afektiboari eta irizpide moral irmoen eraketari buruzko gizarte-pausu zehatzak aplikatu behar dituzte. Bestalde, gizarteratzeko dimentsioa ere badu, baina nahikoa da beste pertsona hurkoa, eta,aldi berean, ezberdina dela aitortzen dituen gizarte-dimentsioa eta dimentsio morala onartzea.

Aipatu dimentsio horiek elkarbizitza kontzeptuaren mende daude, taldeak eta erakundeak gure artean lotzeko faktore gisa, eta irakasleek hezkuntzaren helburuek erdiesteko behin eta berriro nahiz etengabe erabiliko dituzte. Izan ere, ikastetxea, gizarteko erakunderik handiena izanik, elkarrekin bizitzeko esparru baketsua, demokratikoa eta errespetuzkoa bezala ikusten da kide guztien eskubideei begira. Horrela lortzen du, hain zuzen ere, hezkuntza-zereginaren zentzua. Ikuspuntu horretatik lan egitea indarkeria oinarri hartuta baino eginkizun interesgarriagoa dugu, azken hori ukatzen ez den arren. Eskolako elkarbizitza lantzeak eskolako kulturak esku hartzeko komenigarria den konnotazio positiboa eta bul-tzatzailea gehitzen du.

Beraz, eskolan, eduki instrumental, kultural eta zientifiko ez gain, besteekin bizitzeko modua ikasten da, bai eta eskubide nahiz betebeharrak propio eta elkarbanatutako aintzatespena eta menderatzea biltzen dituzten giza-

gezko nortasuna eratzeko modua ere. *Elkarbizitzaren eraketa* (Ortega eta Del Rey, 2004) ereduaren ariara, ikasleek pentsamolde demokratikoa eta arau erkideei begira errespetu-ohiturak eratzeko lagungarria den demokraziari eutsi eta berori aberastuko da. Horregatik, eskolako lanaren oinarria izan eta egoten ikasteko orientabidea ematean datza, hots, ikasleek pentsatzen eta ulertzen, ikasi eta egiten, eta baliagarria izaten eta gainerakoekin harremanak izaten ikasiko dute.

Horrela, eskolak hezkuntza emateko egin behar publikoak beteko ditu, kontzientziak eta komunikaziorako ohiturak eta tresnak eskuratzeko ahalbidetuko duen elkarbizitza konstruktiboa lortzeko xedearrekin. Eskolak, hori ikaskuntzarako erkidegoa den aldetik, elkarbizitzaren, arauen eta balioen negoziazioa oinarri dituen jardueraren bidez, kultura eman, gizarteratu eta irizpide etikoak eta giza legeak sortzeko zeregina betetzen du. Halere, zeregin hori elkarbizitza baketsu eta demokratikoa barneratzen duen gizarte-bilbean garatuko da. Horrela, elkarbizitza eskolako indarkeriaren aurpegi itsuaren aurkako eta gure arteko hezkuntza-praktika da.

### Aipamenak

ORTEGA, R. (1992). Violence in schools: Bully-Victims Problems in Spain. Paper in *Vth European Conference on developmental psychology*, Sevilla.

ORTEGA, R. (1994). Las malas relaciones interpersonales en la escuela. Estudio sobre la violencia y el maltrato entre compañeros de Segunda Etapa de EGB. *Infancia y Sociedad*, 27-28, 191-216.

ORTEGA, R. (1995). Bullying in Andalusian Adolescents. A study about the Influence of Passage from Primary School to Secondary School. *VIIth European Conference on developmental Psychology*, Kradów (Polonia).

ORTEGA, R. (1997). El proyecto Sevilla Anti-violencia Escolar. Un modelo de intervención preventiva contra los malos tratos entre iguales. *Revista de Educación*, 313, 143-158.

ORTEGA, R. (2001). Andalucía Anti-Violence in School: A Global, Ecological and Cultural Model for Dealing with Problems of Violence. Key Note en la *International Conference: From Ripples to Waves*, Brujas (Belgika) (Connect fi-006).

ORTEGA, R. & colb. (1998). *La Convivencia Escolar: Qué es y cómo abordarla*. Sevilla: Hezkuntza eta Zientzi Sailburutza. Andaluziako Batza.

ORTEGA, R. & colb (2000). *Educar la Convivencia para prevenir la violencia*. Madril, A. Machado Libros.

ORTEGA, R. eta R. Del Rey (2004). *Construir la Convivencia*. Bartzelona, EDEBE.

ORTEGA, R.; DEL REY & FERNÁNDEZ, I. (2003). *Violence in School. The Response in Europe*. London and New York. Routledge Falmer.

ORTEGA, R. & MARTIN, O. (2003). Convivencia: A positive answer to prevent school violence through training for citizenship. *Oxford Kobe Seminars: Bullying in Schools*. Kobe (Japonia).

ORTEGA, R. & MORA-MERCHÁN, J. A. (2005). *Conflic-tividad y violencia en la escuela*. Sevilla, Diada

## AUTORITATEA ETA DIZIPLINA IKASGELAN

**Eduardo López López jaunaren txostenaren laburpena, Javier Marcotegui jaunak, Nafarroako Eskola Kontseiluko presidentek, egina**

Ikasgelako autoritatearekin eta diziplinarekin loturiko arazoaren oinarrian dauden kezka batzuei erantzuten saiatu zen txostenean. Eskurtso zabal eta interesgarria egin zuen hezkuntza terminoaren edukiarri buruz eta horrekin loturiko beste zenbait terminori buruz, hala nola, autoritatea, boterea, obediencia, irakaslea, maisua, ikasi, esfortzua, errespetua. Oso irakurketa argigarria da. Termino horien guztien erlazioari buruz honakoa baieztatzen du: "Elkarbizitzarako estrategia egokia da ikasleak eta irakasleak elkarri errespetua eskatzea" eta hiru ondorio ateratzen ditu:



Eduardo López López

1. "Heztea perfektionatzeko ekintza baldin bada, argi dago helburu zintzoak ditugula buruan, helburuok bategi irakasleak proposatzen ditu eta norbaitek irakasleak bere egiten. Beraz, heziketan helburu axiologikoa egon behar du, ez du edozein helburuk balio, eta horri heldu behar zaio, nahiz eta ez egon horren atzetik dabilen edonoren esku."
2. "Horrek esan nahi du irakaslearen eta ikaslearen artean harreman asimetrikoa dagoela, hierarkikoa, desberdinen artekoa... Bategi jakitearen agintea du, eta besteei, ikasleei, gerturatzeko prest dago. Beste horiek ikasteko eskubidea eta betebeharra dute. Bata irakaslea da, beste ikaslea. "Irakasle adiskidearen" filosofia, jende askok denbora luzez erabili duena eta gaur egun oraindik ere zenbaitek uko egin nahi ez diona, ez da bere buruari eusteko gai eta ondorio kaltegarriak dituela ikusi da bai ikasleentzat eta bai irakasleentzat. Biak, nola ikasleak hala irakasleak, berdinak dira duintasunean, baina funtzio desberdinak dituzte eta inoiz ere ez dira parekoak."
3. "Desberdinen arteko perfektionamendu ekintza hori gerta dadin, beharrezkoak dira zenbait baldintza edo eskakizun: errespetua, autoritatea, baita protestak ere behar izanez gero, diziplina, exijentzia, esfortzua... Esan nahi dudana da, nola sistemak, hala familiak eta irakasleek ikasleari exijitu egin behar diogula bere helburuak bete ditzan; baina ikaslea da, beste inoren esku utzi gabe, helburu horiek betetzeko erantzukizun indibiduala eta besterenezina duena ikasketaren bidez, ikasketak eramaten baitu ikaskuntzara."

Aipatu du kontuan hartu behar dela ikasgela barneko giroa ere. Hau da, giro lasaia, irakaslearen irakaste lanean eta ikaslearen ikaste lanean oinarritua, funtsezkoa da hori gerta dadin.

Autoritatea, diziplina eta antzeko terminoen gaiak hori eragiten duten giroarekin lotuta aztertu izan dira: behin eta berriro azpimarratzen da autoritateari errespetua dion giroa sortzea, zentroan eta ikasgelan diziplina nagusi dena; izan ere, autoritatea eta diziplina toki horietan sortutako giroaren ondorio baitira. Zentro bateko eraginkortasuneko faktoreak dira talde lana eta denek banatutako helburuak izatea, gidaritzaz hezigarria, ikastetxeko eta ikasgelako giroa, uste handiak, ikasgelako antolakuntza, jarraipena eta ebaluazioa, heziketa erkidegoaren konpromisoa eta inplikazioa.

**Ikastetxe eraginkorrak** dira ikasleek ikasketak maila altu eta ekitatiboak lortzen dituztenak; hau da, ondorengo urteetako mailetan arrakasta izateko oinarritzko eza-gutzak, kontzeptuak eta abileziak lortzen dituztenak. Ikastetxe horietan autoritatea eta diziplina berez nagusitzen dira. Helburuak eta helmugak argi eta garbi definituta izaten dituzte, arrakastarako espektatiba handiak, zuzendaria izaten da buruzagi argi eta garbia, aurrerapen akademikoa sarri ebaluatzen dute, ikasteko aukera ematen dute eta ikasteko lanean zentratzen dira, giro segurua, ordenatua, helburuetara zuzendua izaten dute, funtsezko helburua lortzeko gurasoen ulermena eta babesa izaten dute.

Ikastetxe eraginkorretako zuzendaritza argi eta garbi izaten da buru bere funtzioetan. Buruzagitza hori eraginkorra izateko klaustroarekin banatu behar da; egonkorra eta indartsua izan behar da, horrek esan nahi du irakasleak egoki aukeratu eta ordezkatu behar direla, kanporatuak bideratu eta gatazkak konpondu, ikastetxeko jarduerak sarri eta modu pertsonalean jarraitu, ikastetxeko hobekuntza ekintzei denbora eta energia eskaini, irakasleak babestu, etab. Azkenik, irakasleak babesteko izan behar du.

**Familia** prozesu honetan sartu behar da honakoengatik:

- "Haurrek onura eskolarrak izaten dituzte gurasoek eta irakasleek bi norabideko komunikazioa dutenean.
- Ikaskuntza areagotu egiten da ikastetxeek gurasoak sustatzen dituztenean seme-alaben garapen intelektuala estimulatzeraz.
- Familiak ikastetxeekin duten harremana aldatu egiten denez, ikastetxeek estrategia desberdinak erabili behar izaten dituzte seme-alaben ikaskuntza prozesuan familia guztiak inplikatzeko."

Laburbilduz, ikaskuntza ona izateko giro egokia ez da nahiko bermea, baina giro egokirik gabe ez dago ikaskuntzarik.

Heziketa onari lotuta daude honakoa adierazten duten terminoak: ordena, metodoa, araua, ikaskuntzan zentratutako giroa, esfortzua, hierarkia, batzuk aberastea, beste tradizioa, obediencia, autoritatea... horiek adierazten digute hezteak dela gizakiok dugun berariazkoena perfektionatzea. Autoritaterik eta diziplinarik gabe ezin da ikaskuntzarik egon. Horregatik galdetzen dio bere buruari txostengileak **zer gertatu den ikastetxeetan** hau horrela izan ez dadin.

**Testuinguru sozial eta kulturean** aldaketak egon dira eta autoritatearen ohiko figurak onartzea galarazten dute. **Helduek** beraiek eragin dute hori. Errespetu falta dagoela eta kexu dira, baina beraien gainetik daudenak zalantzan jartzen dituzte gazteen aurrean inolako begiramenurik gabe. **Irakasleek**, gazteak izan eta autoritatearen bi sinbolo klasiko kendu zituzten, tarimak eta gatzeleraz aritzean "usted" erabilteza. Gaur egungo ne-

rabeen gurasoek, autoritatearen aurkako izpirituz beteta eta jada atzera geratu diren teoria psikologikoak buruan dituztela, diziplina mota oro arbuizaten dute hezteko bide gisa. **Komunikabideek** ez dute obedientziaren, esfortzua, heldutasuna eta jakintza gurtzearen balioa igortzen, baizik eta errebeldiarena; berehalako plazerra eta arrakasta, arriskua, bat-bateko erabakiak, itxurakeria eta gatzetxoek kultura.

Hezteko eskubidea duen **familia** titularrean **aldaketak** egon dira. Ikasleen errendimenduan dauden alde edo desberdintasunen hiruren bat familiari loturiko zergatiengatik da, %15 inguru beste erakunde hezitzaileari, ikastetxeari, loturikoengatik. **Gazteek**, oro har, "konpromiso morala" eta "errudun sentimendua" ez dute garatzen, eta horrek eragin "katastrofikoak" ditu printzipio moralak ongi ikasteko zailtasunak dituztenetan. Familia autoritariorik demokratikora igaro gara, nahiz eta argi dagoen haurrek zenbait gaitan ahotsa izan dezaketela baina ez bo-ta. Haur iperparituak eta hiperbabeak ditugu: "batzuetan, irakaslearen arerioa familia da".

Azkenik **irtenbideak** daude. Ikasgeletako eta ikastetxe-etako indarkeria arazoa konpontzeak zergatiak ulertzea eskatzen du. Ez dirudi dekretuz berreskura daitekeenik aurreko hamarkadetan zegoen baldintzarik gabeko errespetua eta obedientzia. Gaia ezin da arazoaren iturburu batean bakarrik kokatu, beharrezkoa da kontuan izatea faktore pertsonalak, familiarrak, sozialak eta ikastetxeak.

Beharrezkoa da bi frontetan aritzea: familian, hor baita-ko arazoa eta irtenbidea hein handian eta ikastetxe-etako instantzietan.

Familiako ekintzen artean **Familiako Heziketa** nabarmentzen da, familia bizitzako patroik identifikatzaileak behar dituenak; gurasoen eta seme-alaben arteko harreman egokia; familiako bizitzako errutina argiak; familiako espektatibak eta kontrolatzeko mekanismoak ezagutu; ikastetxe-lanak kontrolatu etxean.

Familia-ikastetxea harreman ere gogoan izan behar da; ikastetxea-familia komunikaziorako mekanismo eraginkor-rrak eskatzen ditu, gurasoak trebakuntza prozesuan sartzea; Gurasoak egoki trebatu behar dira familiako giroa nola hobetu jakin dezaten; familien arteko komunikazioa.

Ikastetxe-etako instantziek hartu beharreko erabakiek lanerako giroa sortu behar dute, errespetuzkoa, diziplina eta autoritatea izango dituenak.

Administrazioak **arauak** agindu behar ditu ikastetxean lanerako irizpide argiak dituenak. Eskolako emaitzak hobetzea izango da lehentasun nagusia, ikasketa eta esfortzu pertsonala sustatu behar dira, heziketa sistema malgu baina exijentea sustatu, irakaskuntza edukiak eta metodoak pribilegiatu, zentroen autonomian aurrera egin, zuzendaritza profesionalizatu eta ebaluazioa indartu.

**Ikastetxeek** zenbait jarduerak hasi behar dituzte errespetua, diziplina, autoritatea eta elkarbizitza sustatuko dituztenak. **Irakaslearen autoritatea** funtsezko alderdia da. Zuzendariak babestu egin behar dituzte irakasleak, gurasoek lagundu, ikasleek errespetatu; autoritate indartua. Beharrezkoa da irakasleei zigorrak berehala ezartzeko eskumenak ematea.

Ikastetxeetan **bi ekintza** zaindu behar dira bereziki: Ikastetxe-ko barne-araudia kontu handiz idatzi eta ikasge-lako araudia, Ikasge-lako Eskola Kontseilua izan dadin.

Txostenaren amaieran erreferentzia bibliografikoek zere-nda luzea dago.

*Testua Eduardo Lópezen txostenaren edukiaren erreferentzia zehatza da. Eduardo López jauna Madrilgo Unibertsitate Complutenseko katedraduna da eta Nafarroako Eskola Kontseiluen VII. Jardunaldian azaldu zuen. Txostena jardunaldietako aktetan argitaratu da.*

## IKASTETXE-ETAKO ELKARBIZITZA HOBETZEKO PLAN OROKORRA

**Rita Maeztu Rodrigo andrearen eskutik Nafarroako Hezkuntza Saileko Elkarbizitza-ar- loko aholkularia.**

Eskolako errealitatea aldatu egin da. Egia esan kultura- eta gizarte-balio ezberdinak dituzten pertsonen aurrean gaude, kultura arteko agertokian eta balioak elkarbizitza arautzeko lagungarriak diren "elkarbanatutako arauak" gisa lausotzen dituen mundu globalizatuan.

Balioen gaineko hezkuntza, Nafarroako Foru Erkidego-ko hezkuntza-sistemaren helburu nagusia eta etengabea da, eta hori ikastetxe publikoek hurrengo ikasturtearen antolaketa eta funtzionamendua gidatzen dituzten jarraibideak arautzeko Foru Agindu ezberdinetan horrela jasota geratu da. Izan ere, atal berezia ezarri da "Giza garapenarekin nahiz gizarte-garapenarekin, elkarbizitza-ekin eta bakearekin zerikusia duten balioei buruzko hezkuntza".

Hain zuzen ere, 2005-06 ikasturtean, Balioen atalean elkarbizitzaren gaia ikastetxeetan jorratzeko beharrezko modu positiboan jaso da, alde batetik, hori ikaskuntzari begira mesedegarria izan dadin, eta, bestetik, gizarte ezberdinen eta anitzen artean elkarrekin bizitzeko beharrezkoak diren gizarte-trebetasunak eskuratu daitezke. Horretarako, erantzukizuna eta elkarbizitza bezalako ohiturak indartzen dituzten eskolaren eta familiaren arteko koordinazio-ildoak bultzatu behar dira.

Beraz, Elkarbizitza Hobetzeko Planaren xedea eskola-elkarteko kide guztien arteko elkarbizitza hobetzea da, hezkuntza-erkidegoko kide guztien lankidetzeta eta esku-hartzea ahalbidetzen duten aurreneurizko ekintzen bitartez, eta erantzun azkarra nahiz eragingarria eskainiko du hori modu larrian aldatzen denean.

Eskolako elkarbizitzan dauden zailtasunen jatorria hainbat arrazoi izanik, Sailak elkarbizitza kudeatu eta gataz- kak konpontzeko eredu osoa eta integratua aukeratu du, hezkuntza-erkidego guztia barnean hartuz.

Planaren arabera, esku hartzeko bi maila ezberdin ditugu:

### Hezkuntza saila

Sailak burutu dituen jarduketan artean, Elkarbizitza Aholkularitza azpimarratu behar dugu, 2005eko urtarilean sortu zena. Teknikariak (Ikastetxe-ko orientatzaileak) jarduketan ezberdinak koordinatzeaz gain, prestakuntza antolatu, gizarte-sentsibilizaziorako kanpainak diseinatu eta ezarri eta Nafarroako hezkuntza-erkidegoko estamentuei aholkuak ematen dizkie eskolako elkarbizitza aztoratzen dituen presako kasuak konpontzeko helburuarekin.

Hezkuntza-erkidegoko kide guztien prestakuntza Hobekuntza Planaren oinarritzeko ardatza da. Hori lortzeko, ikasturtean zehar, Torrego irakasleak prestakuntza-espe- rientzia Bigarren Hezkuntzako Ikastetxe guztietara zabal-



Biurduna BHIko Tartekaritza taldearen lan saioa

du du. Era berean, beste prestakuntza-ildo bat jarri da abian Haur eta Lehen Hezkuntzako Ikastetxeetan Rosario Ortega irakaslearen eta bere taldearen zuzendaritzapean. Beraz, gatazkak konpontzeko prestakuntza hezkuntza-erkidegoko kide guztiek jaso dezaten.

Aldi berean, 632/05 ebazpena abian jarri denez, ikastetxe guztietako Hezkuntza Egitasmoetan Elkarbizitza Plana jasoko dute, eta horren azken helburua hezkuntza-erkidego guztiak elkarbizitza-arazoak aztertu eta kolektibo guztien interesak jasotzen dituzten hobekuntza-arauak eta egitasmoak proposatzea da.

### Ikastetxeak

Elkarbizitza arlo ezberdinetan garatzen da, eta zenbait kasutan, gure ikasleek kontraesaneko ereduak jasotzen dituzte:

1. Familia gizarteratzeko lehenengo tokia da, eta, horrenbestez, familiaren barruan sortzen diren elkarbizitza-ereduei buruzko gogoeta egin behar da. Diziplina gurasoek ezartzen zuten, baina, gaur egun, ereduak permisiboagoa eta malguagoa bihurtu da, eta mugak nahiz elkarbizitza irakasteko zailtasunak daude.
2. Ikastetxeak ez du eskaintzen pertsona garatzeko eza-gutzak bakarrik.
3. Sarritan, hedabideek lehiakortasuna, errespetu gabezia eta ezberdintasunen aintzatespena eta balio positiboak irakasteko baliagarriak ez diren indarkeriazko portaeren ereduak erakusten dizkigute.

Horrenbestez, gizarteak aurrera egin behar du, batez ere, besteen gain erantzukizuna eta elkarrekiko errespetua bezalako printzipioak oinarri dituen agintaritza egikaritzuz.

Horrela, agintaritza behar bezala egikaritzeko, eragilean arteko elkarriketa nahiz adostasuna eman behar dira, betiere bakoitzak bere gain kasuan kasuko erantzukizuna hartuta.

Ikastetxeetan modu positiboan elkarrekin bizi eta indarkeriazko portaerak saihesteko espazioa eskaintzen du, arrazoi hauek direla medio:

- Haurrekin harremanak izateko familia ez den elkarreaginezko esparrua eskaintzen da.
- Gizarteko estamentu ezberdinen arteko harremanen alde egiten da.
- Onarpenaren, ukapenaren, adiskidetasunaren eta etsaitasunaren sentimenduak agertzen dira.
- Eta bereziki, hezkuntza emateko helburua duten egoerak antolatu eta egituratu daitezke.

Gatazkak gure egunerokotasunean ageri dira, hain zuzen ere, gure harremanetan kontraesaneko interesak, beharrezkoak, ideiak eta portaerak aurkezten direnean. Halaber, gatazketan emozioek garrantzi berezia dute, hala nola, haserreak eta frustrazioak. Hala ere, gatazka berez ez da ona, ezta txarra ere. Garrantzitsuena gatazka hori konpontzeko bidea aurkitzea da. Izatez, garapenerako eta aldaketarako aukera ezin hobea izan daiteke; bestalde, ikastetxeetako elkarbizitzaren inguruko benetako arazoak jatorria ere izan daitezke.

Hori alde batera utzi edo ukatzen bada, hori konpontzeko zailtasunak sortuko dira eta elkarbizitza narriatuko da. Orokorrean, indarkeria sortzeko arrisku handiagoa egongo da. Zorionez, gizakiok elkarrekin komunikatzeko tresna zoragarria dugu, hizkuntza, hain zuzen. Horren bidez, hainbat jokabide eta estrategia ikas ditzakegu: elkarriketa, sentimenduen eta emozioen adierazpena...

Gatazkarekin erkatuz gero, indarkeria gizarteak sortu duela esan dezakegu. Indarkeriazko portaeren garapenean, hainbat faktorek esku hartzen dute, horien artean, pertsonalek, familiakoek eta gizarte-faktoreek, eta, une oro arriskuan daudela baieztatzen dugu.

Hezkuntza-erkidegoa osatzen duten talde ezberdinen arteko harremanei dagokienez, elkarbizitzan nahiz ikasketan eragina duten giroa sortzen da.

Errealitatean, ikastetxeetan elkarbizitza aztoratzen duten egoerak gertatzen dira. Ikasleen motibazioa galdu eta jokabide disruptiboen ondoriozko gatazkek kezka handia sortzen dute, banakakoari nahiz taldeari begira ikastetxeetako gatazkak areagotu eta elkarbizitza narriatzen baitituzte.



Gisa bertsuan, ikasleek une berdintsuetan taldearekin identifikatzeko sortzen diren gatazken ondoreak jasaten dituzte.

Elkarrekikotasun afektiboa eta ekintzen gaineko erantzukizuna ikaskideekin dituzten harremanen ondorioz ikasten dira. Gehienek gainerakoei begira izan beharreko solidaritatea, adiskidetasuna eta errespetua berez ulertu eta ikasten dute (batak besteari zor dion errespetu maila berearekin). Hala ere, ikasleen ehuneko txiki batek ez du hori egiten eta indarkeria prebenitzeko helburuak planifikatu eta azaldu behar dira.

Kideen arteko harremanetan printzipio horiek hausten bada, berdinen arteko indarkeriari buruz hitz egiten ari gara, eta horrek izen ezberdinak ditu: bullyinga, larderia eta jazarpena.... Hona hemen jazarpena dagoela azaltzeko arrazoiak:

- Erasoak justifikatu gabe modu iraunkorren eta etengabe egiten direnean.
- Norbaitek indarra erabiltzen du gainerakoak menderatu edo horiek bere mende jartzeko. Horrela indarren desoreka sortzen da.
- Kalte egiteko asmoa dago.

Biktimaren sufrimendua berehalakoa izan arren, ezin ditugu ahaztu pertsona arteko indarkeriaren agertokian dauden guztiak.

Familiaren aldetik, elkarbizitza demokratikoaren printzipioan oinarritutako harreman positiboak garatzera bideratutako babes-faktoreak bultzatu behar dira:

- **Eredu positiboak**
  - Seme-alabekin egunero hitz egitea euren arazoei buruz eta horiei aurre egiteko moduari buruz.
  - Errespetua eta tolerantzia bezalako balioak irakastea.
- **Arau argiak eta tinkoak**
  - Telebistako programak kontrolatzea
  - Teknologia berriak erabiltzea: messengerra, mugikorra...
- **Lagunak egiteko aukerak ematea.**
- **Ikastetxearekin lankidetzan jardutea, hezkuntza emateko zereginean laguntza emanez eta elkarri aintzat hartuz.**

Ikastetxeetako Elkarbizitza Plana eratzeko, hezkuntza-erkidego osoak gogoeta egiteko eremua eskaintzen da, batez ere,:

- Kudeaketa demokratikoan parte-hartzea ahalbidetuz, gazteen balioak kontuan hartuta.
- Tutoretzaren Ekintza Planaren bidez indarkeria prebenitzeko jarduerak proposatzeko, eskubideak eta betebeharrak errespetuaren eta tolerantziaren printzipioen mende eratzeko xedearekin, eta gizartean baztertua geratzeko arriskua duten ikasleei laguntza emateko.
- Indarkeria-kasuetan, azkar esku hartu behar da, protagonistak aintzat hartuta.

**Azken batean, plan horren arabera, ikasgelean, eta, orokorrean, ikastetxeetan IKASKUNTZA bereganatzeko esparru seguruak eskaintzen dira, oinarria hezkuntza-erkidegoko kide guztien errespetua eta tolerantzia izanik, eta elkarbizitza aurrera eramateko zereginean kasuan kasuko ERANTZUKIZUNA bereganatu behar da.**

## IKASTETXEKO ELKARBIZITZA

**Manuel Campillo**

**Meseguerren eskutik, "Benjamin de Tudela" BHiko filosofiako irakaslea eta zuzendaria.**

### 1. Ikasleek familian eta gizartean ikasi duten bizimodu (ohiturak, balioak) beste erakusteko joera dute

Ikasleak ikastetxera ohitura eta balio zehatzak ikasita etortzen dira, batik bat, esparru eta etapa ezberdinetan jasotakoak, dela familian, katean, edo hedabideetan. Familia gizarteratzeko eragilea den aldetik, subjektu hezitzailea, zalantzarik gabe, gizartea da. Horren aurrean, familiaren indarra galtzen ari da.



Manuel Campillo Meseguer

Familiarengandik eta gizartearengandik jasotako hezkuntza osagabea edo okerra denean, eskolak nola zuzenduko du? Balio eta ohitura horien ikaskuntza-sistema adibidean eta imitazioan, ohituran eta praktikan oinarritzen da, eta, ez, ordea, hitzaldietan.

### 2. Gizarte-eredua (balioak sortu eta igortzen dituen) aldatuz doa

Gizartea mundu guztian erritmo handiarekin aldatzen ari da. Espainiako gizartea tradiziozkoa, landan oinarritutakoa eta homogenea, egonkorra eta autoritarioa izan da, eraginkortasun zehatza duten balioak igorritik. Izan ere, gizarte hori hierarkizatua eta autoritarioa zen, eta portaerak nahiko homogeenak ziren.

Gaur egun, gizarte moderno, hirikoa, anitza, aldakorra eta permisiboa lortu nahi dugu, beste muturrera iristeko arriskua saihestuz, hau da, alferkeria eta arduragabeeriaren alderdia. Gizartearen eremu berri horri dagokionez, eragile hezitzaile nagusia kontsumo-ekonomia (merkatua) da, nonahikotasuna gero eta nabarmenagoa izanik, eta, neurri handi batean, hedabideek igorritako indarreko balioak sortuko dira. Aurrezteko ekonomiatik kontsumo-ekonomiara igaro gara. Hasieran garrantzitsuen aurrezkiek, esfortzua eta prestaketa ziren, baina denborak aurrera egin ahala, emaitza, erosketa, erdiespena eta asebetetzea ditugu oinarri. Gure kasuan, garrantzitsuen kontsumitza da (epe laburrean asebetetzea), eta, geroago, inolako presarik izan gabe, oinartzea (ondorioak epe luzean bereganatzea). Egia esan, nerabeen pentsamolde hori helduen artean ere oso orokorra da, eta "erantzukizun-askatasuna" ahalbidetuko du.

Spainian, azken hamarkadetan hazkunde ekonomiko garrantzitsua gertatu da. Halere, aldi berean, ez da sortu, ekonomiaren balio horiek ahuldu, arautu eta osatzeko gai den gizalegeko etika erkiderik. Oraindik ere paternalismoaren hondarrak geratzen dira, herritarrak euren kabuz antolatze behar besteko gaitasunik edo ohitura-

rik ez baitago, batik bat, konponketak aurkitzeko, eta, ohi bezala, arazoak norbaitek (goikoek) konponduko dizkigulakoan gaude.

Ikuspuntu hori aintzat hartuta, gaur egungo familiak (txikia eta aldakorra, ezegonkorra eta anitza) gero eta indar gutxiago du hezkuntza hori ziurtatzeko. Garai hartan ere ez zen gai izan instrukzioa emateko eta zeregin hori pixkanaka-pixkanaka ikastetxeari eskuordetu zion. Bestalde, gaur egun ere balioen gaineko hezkuntza emateko gaitasunik ez duela agerian uzten ari da, eta, horrenbestez, ikastetxeak bere gain hartzeko aldarrikapena egin du.

### 3. Gaur egun, ikastetxeko elkarbizitza konplexuagoa da (ikastetxeen arabera)

Familiaren ahuleziari emigrazioaren fenomeno gehitu gero, ikastetxeek hezkuntza emateko duten zeregina ere konplexuagoa bihurtu da. Egoera horren aurrean, gizarte-joerek, ikastetxea askatasunez aukeratzeko printzipioari helduta, konplexutasun gutxiagoko ikastetxeak sortzeko eskaera egin dute, baina horren ondorioz, beste ikastetxe batzuetako konplexutasuna areagotu da. Hezkuntzaren inguruan sortu diren ideia eta egitasmo ezberdinak direla medio, horien arauketa eta kontrol gabeziaren ondorioz, hezkuntza-merkatua banatu da, eta gurasoak bezero edo kontsumitzaile hutsak izango dira. Hiriko maila ertainak aukeraketa hori egiteko oinarritzko bi irizpide aplikatzen ditu:

1. Gizarte- eta kultura-dibertsitate gutxi (etorkin gutxi) eta hizkuntzaren homogeneotasun handia duten ikastetxeetan parte hartu nahi dute, bestelako justifikazio nabarmenak alde batera utzita.
2. Ikastetxearen antolaketa behar bezala kudeatuta egotea, langile-talde egokia izatea eta emaitza eragin-garriak lortzea ditu helburu.

Bi irizpideok nahastuz gero, hezkuntza-merkatuan ikastetxe ezberdinak izateko aukera eskaintzen zaigu. Horietan, aurretik gizarteratutako eta nahiko homogeneoak diren ikasleei irakatsiko zaie, eta, ondorenez, bikaintasunaren helburuetara bideratzeko erraztasun handiagoak izango dituzte. Bestalde, beste ikastetxe batzuetan gizarte- eta kultura-ikuspegitik oso ezberdinak diren ikasleen (ghettoak) parte-hartzea izango dugu.

Benetan desiragarria ikastetxe berdinak, baina,aldi berrean, ezberdinak izatea da. Alderantzizkoa sustatzen denez gero, eskolako sistemak merkatuaren balioak eta desberdintasunak azaltzen ditu. Berriro ere elkarbizitzaren esparruan hezkuntza emateko nahia adierazi nahi dugu, baina Nafarroan indarrean dagoen ikastetxeen sistema heterogeneoa dela-eta (hiru sare, gizarteko hiru talde ezberdin kontuan hartuta) alderantzizkoa gertatzen da: gizartearen zatiketa eta banaketa. Xedea ez da hezkuntza aniztasunean ematea, gizartean gertatzen den bezala, ezpada homogeneotasuna azpimarratu nahi da, ideologia eta gizarteko sektore ezberdinen arabera ikastetxe kopurua sortuz. Hain zuzen ere, etorkizunari begira presatzen gaituen mekanismo errektiboa eta defentsarako baliagarria da.

**4. Eskolako sisteman, ikastetxea (subjektu kolektiboa) da eragile hezitzailea,** irakasleez haraindi. Hala ere, banakakoak bildu eta taldean lan egiten dutenean soilik ikastetxea elkarrekin egoteko toki eragingarria izango da.

Elkarbizitzaren kudeaketa ikasgela bakoitzean garatzen da, bereziki, ikastetxe osoan, familiak aukeratutako subjektu hezitzailean. Gizarteak bertan sortzen diren elkarrengaren arabera hezkuntza emango du. Ikastetxea elkarrekin bizi, eta irakasleen, ikasleen eta familien artean harremanak izateko gunea da. Hezkuntza harreman horien multzoan garatuko da, praktikarekin zerikusirik ez duten mezu formalen bidez. Ikasleen jatorriaren egoera konplexuagoa edo ahulagoa den heinean, ikastetxearen garrantzia areagotu egingo da.

Beraz, ikastetxe onak izan behar ditugu, eta horien eragingarritasuna proposatutako egitasmoaren eta taldeen arabera zehaztuko da. Oro har, beharrezkoa da kudeaketa-autonomia, behar besteko baliabideez, ondo prestatutako irakasleez, eta abarrez gain.

### 5. Ikastetxeen elkarbizitza hobea lortzen da gizarteari dagokionez

Hezkuntza emateko unean zailtasunak aurkitzen ditugu, baina ikastetxeetan ordena eta gizalege gehiago, indarkeria eta gatazka gutxiago daude, kalean ditugunekin erkatuta, bai eta familia askotan daudenei begira ere. Bada, ikasle batzuk euren etxetako pertsonak baino zorrotzagoak garela diote. Ikastetxeek elkarbizitzarako burbuila eratzen dute kanpoko gizarteari begira, eta hori sakabanatuagoa, permisiboagoa, eta, batzuetan, are-rioz beteta agertzen da.

Zernahi gisaz, hezkuntza ikastetxe anitzetan eta konplexuetan emateko zeregin horrek irakasleak nekatzen ditu, kasuan-kasuan arrasto garrantzitsuak utziz. Sentimendu orokorraren arioren, ikastetxea bakarrik dago eta baliabide gutxi ditu. Beraz, egindako esfortzua ez da nahikoa, batez ere, ikastetxe batzuetan egindako esfortzua besteetan baino handiagoa denean.

### 6. Hezkuntza elkarbizitzan oinarrituta emateko, herri eta erkidegoko hezkuntza-egitasmoen bidez landu behar da.

Ikastetxea ez da behar bestekoa familiaren ahuleziaren eta merkatuaren indarraren aurrean. Arazoak gizartean sortzen badira, konponbidea ere gizartean aurkitu behar da. Hezkuntza esku-hartze publiko ooren zeharkako eremua bihurtu da. Hala ere, herriko planak behar dira, erakunde-planak, eragile eta erakunde guztiak koordinatu daitezzen gizartetik eta ekonomiatik datozen balioen sorrera indartsua kontrolatu ahal izateko. Plan horiek udalek eta autonomia-erkidegoek kontrolatu behar dituzte, eta, hori hurrengo bi irizpide kontutan izanda egingo da:

- A. Hezkuntzan esku hartzeko metodoa eragile ezberdinen koordinazioan (talde-lana) oinarritzen da, ikastetxe bakoitzean, ikastetxeen artean eta gizarte-erakundeekin batera. Ezinbestekoa da "tribu" guztiak modu koordinatuan jardutea hezkuntza emateko zeregina eragingarria izan dadin.
- B. Koordinazio horrek ematen duen hezkuntzaren helburu nagusia erantzukizun pertsonalaren (banakakoarena, gainerako pertsonen eta gauzei begira) garapena izan behar da, nerabe kontsumitzaileak herritar heldu bihurtu daitezzen. Herritar arduratsuek eta autonomoak sortu nahi dira, euren buruaz, eta, ahal den neurrian, gainerakoez jabetzeko.

Aristotelesek hau dio: *"Herri ooren helburua bakarra denez gero, hezkuntzaren zaintza guztiona eta publikoa izan behar da. Erkidegoaren arazoan konponketa erkidegoarena izan behar da."*

## IKASTETXEETAKO ELKARBIZITZA. AITA BATEN HAUSNARKETAK

**Antonio Rodríguez Frailek sinatua**

### Egungo egoera

Uste dut ikastetxe-etako elkarbizitza forma eta estiloa gizartearen antzematen den elkarbizitzaren isla dela. Eraikitzen eta garatzen ari garen gizarteko elkarbizitza nolakoa denaren irudia ematen digun ispilua da.

Alde positiboak.

- Gizakiaren balorazioa. Gizakiaren eta haren aberastasun, ezberdintasun, askatasun eta ahalmenaren balorazio positiboa.
- Gainerakoenganako errespetua. Gizakien gaineko balorazio horrek, gainerakoan aldetiko errespetua jasotzea exijitzen du, eta beraz, gainerakoan errespetu konpromisoa.
- Gainerakoenganako tolerantzia balore garrantzitsutzat hartzea igaro gara.
- Gonbidapena ezarpenaren aurrean. Garrantzitsua da gonbidapenak egiten ikastea ezarpenak egitearen aurretik.

Alde negatiboak.

- Gizakiaren gehiegizko balorazioak indibidualismoa ekarri du:
- Erakundearen balorazioaren erorpena. Horien artean maisutza eta eskola aurki daitezke.
- Komunikabideen "alarmismoa". Goibeltasunez ikusten dut nola ari diren komunikabideak alarmismoa sustatzen gizarte gai guztien baitan, Hezkuntzarena barne. Horrek egoera zehatzak orokor bihurtzeko joera izatea dakar, eta epaiketak egiten eta errua botatzen amaitzen dugu hausnarketa hotz, arrazional eta serioa egin gabe.
- Erreferentzien galeraren, erakundearen izen galeraren, harremanen krisiaren, indibidualismoaren ondorioz, beldur eta itxaropen galerako sentimendu lauso eta inkontzientea sortzen da gugan. Horrek gutako bakoitzak gizakiarekin duen gizarte konpromisora urratu du, eta gure seme-alaben hezkuntza osoaren konpromisora Guraso Elkarteengan bereziki uztea ekarri du, eskola zentroarekin elkarlanean. Modu berean, gizarteari gure erantzukizunekoak diren arazo horiek konpontzeko eskatzea ekarri du.
- Hausnarketa falta harremanak eratzeko moduaren gainean. Inguratzen gaituen esparruarekin, gure seme-alabekin, beren irakasleekin, gure seme-alaben lagunekin, gure lankideekin, klaustroko kideekin, gure ikasleekin, benetan nola jartzen garen harremanetan ezagutzeko prestakuntza eta hausnarketa falta da.



Antonio Rodríguez Fraile

Espero dut alde guzti horiek, bai positiboek (indarra ematen digutelako) eta baita negatiboek ere (hausnarketa egiteko laguntza ematen digutelako), gizarte elkarbizitza egokia eta emankorra sorrarazteko harremanak eratzten ikasteko aukera ematea. Horren ondorioz, elkarrenganako errespetu, laguntza eta animuan oinarrituriko eskola elkarbizitza sortuko da guraso, irakasle eta ikasleen artean.

### Familia elkarbizitzaren lehenengo hezitzaile gisa

Familia da gizakien hezkuntza esparrua, bai maila materialean eta baita afektibo eta sozialean ere. Bertan ikasten da pertsonakiko eta gauzekiko harreman egokia izaten, heltze prozesua garatzen azken batean.

Seme-alaben hezkuntzaren erantzukizuna aitarena eta amarena da batera. Haien hezkuntzaren helburuak adostuko dituzte, eta jarraituko diren balioak ezarri.

Heziketa harremanean eta bizi ditugun balio eta jokabideetan ematen da, horiek baitira norberak bere buruarekin dituenak, bikotearekin agertzen direnak, eta seme-alabekin ikusten direnak. Gauza bera gertatzen da gauzekiko gure harremanetan: telebistarekin, kirolekin, albiste batengatik modu ozenean egiten ditugun aipamenekin edo laneko kide baten jokaldi makurrarekin, edo auzokoak erosi duen ibilgailu berriarekin agertzen dugun harremana.

Eta horrela, gauzak bizitzeko dugun modutik, une oro eta gure bizitzako gauza bakoitzari aurre egiteko dugun joeratik, gure seme-alabak hezten goaz.

Horregatik, beharrezkoa da gurasotasunaren erantzukizuna modu kontzientean, helduan eta hausnartuan garatzea.

Hartu nuen lehenengo printzipioa izan zen, seme-alaben aitak beraiengatik egin dezakeen gauzarik onena beren ama maitatzea dela. Nire emazteak eta nik ulertu genuen gure seme-alaben hezkuntza osorako, eta segurtasuna eta autonomia emateko, gure artean maitatzen ikasi behar genuela, eta beraz, biok bikoteko elkarbizitza egokia eraikitzen joateko konpromisora hartzea ezinbestekoa zela.

Hurrengo puntua izan zen, guraso gisa genuen lana gure gain hartzeak suposatzen zuela animuak ematea, laguntza eskaintzea, zaintzea, arrazoiak ematea eta jokabide eta horien inguruko gauzetan egia esatea, eta modu berean beraienganako eta beren ahalmenenganako fede eta itxaropena izatea.

### Eskolatzea jokabidearen hezkuntzarako laguntzaile, bizipen eta gizarte portabidearen ikasketarako esparru gisa

Ikastetxea seme-alaben hezkuntza sendotu eta horretarako laguntza (hitzak duen esanahi zabalenean) emango duen eremua da; haurrak familiaren esparru eta tutoretzatik kanpo beste pertsona batzuetara irekitzen ikasteko esperientzia bizi du.

Une horretatik aurrera etxean bizitakoa garatuko du, eta harreman guztiak bezala tentsioa suposatuko du, bere balio eta irizpideak gelakideek dituztenekin alderatuko ditu, irakasleekin eta ikastetxeko beste helduek dituztenekin bezalaxe. Beharrezkoa da alderatze horrek jarraipen bat izatea irakaslearen, tutorearen eta bereziki gurasoen aldetik, modu horretan jokabide positiboak onartuko zaizkielako eta negatiboak aldarazten irakatsiko.

Prozesu hori hauraren, nerabearen eta gaztearen ikasketek irauten duten bitartean luzatuko da. Prozesu horretan aldatzen joango den gauza bakarra da, jokabide positiboak baloratzeko modua eta negatiboak zuzentzekoa.

## Eskola Komunitatea

Gurasoen, irakasle eta maisuen, zentroko langileen, eta azken batean gizarte guztiaren helburua gizakien garapen osoa da, bai seme-alaba gisa, ikasle gisa, gelakide gisa eta hiritar gisa. Helburu hori lortzeko, beharrezkoa da Eskola Komunitatea eraikitzea. Horretarako gurasoek, hezitzaileek, administrazioak eta gizarte agenteek hartu behar dute parte.

Beharrezkoa da gizarte agenteek, Herri Administrazioak, hezitzaileek eta familiak elkarrizketak izateko esertzea, erririk egotzi gabe, batzuek besteek esan beharrekoa entzunez, talde bakoitzaren arazoak ezagutu eta horien gainetik arduratuz, eta horietako bakoitzaren ekarpena zein izan daitekeen hausnartzuz eskolako elkarbizitza positiboa izan dadin guztiontzat.

Beharrezkoa da talde horiek guztiek familia laguntzea, gurasoei prestakuntzarako sarbidea eta baliabideak jarritz, gizakiaren balioak familian bizitzeko. Horien artean errespetua, zintzotasuna, entzuten jakitea, ulermena, erantzukizunaren zentzua, norberak bere jardueren ondorioak bere gain hartzea, izango litzateke. Kontuan hartu behar da gainera, helarazten diren balio bakarrak bizitzen direnak direla.

Beharrezkoa da talde horiek guztiek irakasleak laguntzea, prestakuntzaileen prestakuntzarako sarbidea eta baliabideak jarritz balioen arabera hezkuntza errealitate bihurtzeko, eta gizakien prestakuntzaren lan izugarrian lasaitasunez, hausnarketak eginez eta profesionaltasunez sartzeko ezagutzak eta lanabes egokiak izateko.

Beharrezkoa da gurasoek eta irakasleek ilusioa eta itxaropena izatea. Gizakien zerbitzura gaudela kontuan izan behar dugu, pertsona gisa izango duten hezkuntzaren zerbitzura, eta horrek errespetua, kritika eta norberarekin kritika konstruktiboa ulertu, gain hartu eta bizitzeko aukera emango diela.

## URMAELAREN HONDOTIK

**Jesús Gallego**

**Herranzen eskutik, Puente la Reina ko Puente Centroko hezitzailea eta zuzendaria<sup>2</sup>**

Ikastetxeetan nahiz horren inguruan, porrota, atsekabea eta gatazka sortzen dira. Gure ametsetan agertzen den eskola oraindik ere nahiko urrun dago. Haserrea eragiten duena elkarbizitza, edo, hobeto esanda, diziplinarik eza da.

Arazoa ez da zehazten estatistikek eta baliabideen adierazitakoaren arabera, irakasleek, gurasoek eta ikasleek sentiitzen dutenaren arabera baizik.



Jesús Gallego Herranz

## Inkoherentzien ikuspuntutik egindako begirada

Nortasun-nahaste batzuk inkoherentziak bereganatzean sortzen diren bezala, eskolako eta gizarteko elkarbizitzari buruzko arazoak berori gertatzeko eskola- eta gizarte-inkoherentzien ondorioz gertatuko dira.

Jarraian, zazpi inkoherentzia gogorrenak aipatuko ditut, eskolan arazorik larrienak sortzen dituztenak, eta, ondorioz, elkarbizitza modu larrian eragozten dutenak.

1. Hezitzaile asko ez dira jabetzen euren egiten duten zereginaren garrantziaz. Hori dela eta, irakasleek zailtasunak dituzte euren zeregina instruktzioa (ezagutzak igortzea) eman edo hezkuntza ematea den jakitearen inguruan.
2. Hezkuntza-aldaketa egin berrien arabera, ezagutzak igortzeaz gain, prozedurak, portaerak eta balioak igorri behar dira. Hala ere, txostenetan ikasleek bi edo hiru eremuei buruz dakitena ebaluatzen dute. Beraz, hortik lortzen diren emaitzek umore txarra eragiten dute.
3. Hezitzaileen eta planteamendu pedagogikoen artean nahasketa harrigarria dago motibazioak eta esfortzuak duten garrantziari begira.
4. Hezkuntzaren esparruan argitu gabe geratu diren kontzeptuen artean, integrazioa (askotan eskatu da, baina gutxitan definitu da), inklusioa (lasaitasuna ematen digu) eta dibertsifikazioa ditugu.
5. Esparru guztietan nerabeekin dagoen tratua eta harremanak ez daude definituta: alderdi askotan babestu eta mimatu egiten ditugu, haurrei egiten zaion bezala, horien beharrezkoak nagusitatu joz, baina beste kasu batzuetan, askatasuna, mugikortasuna eta baliabideak izango dituzte, helduek duten bezala.
6. Gizarte honetan berehalakoa eta azalekoa soilik baloratzen da, hau da, irabazi azkarra eta erraza. Horrela, aginte eta autokontrol oro baztertzen da, "ez pentsatu, dibertitu!" esaldia aldarrikatuz. Hala ere, ikaskuntza garrantzitsuen kasuan, denbora, pazientzia, doakotasuna, diziplina, autokontrola eta aginte moralak behar dira.
7. Gure ikastetxeetan, helduen munduan, hezkuntza-erikidegoetan edo klaustroetan ez dagoen elkarbizitza eskuratu nahi da.

## Aukerei eta konponbideei buruz

Bukatutzat emango dugu errealitateari eta arazoei buruz egindako xehetasunak. Oraingo honetan, gatazka aukera bezala eskaintzeko ekarpen batzuk adierazi nahi ditut.

Nire eskuetan ez dago konponbide magikoa, eta ezin dut adierazi zer den funtsezkoa. Nire ustez, alferrekoa da balorazio tolesgabeak edo orokortasun errazak egitea. Edukia ukitzen duten joerak aztertu behar dira. Hainbat energia xahutzen dugu neurri aringarrien bidez, baina ez ditugu aintzat hartzen funtsezko alderdiak.

Konponbidearen zati bat zerura begiratzen ageri da (Google zerbitzarian ere aurki daiteke). Bai, zerura begiratzen dugu antzarrek hegan egiteko duten modua ikusi dezagun. Ba al dakizu zergatik antzarrek hegan egiten dute "V" irudia eginez?

Antzarren adimenarekin arazo asko konponduko genituzke. Energia eta baliabide asko galtzen ditugu, batik batik, koordinaziorik ezagatik, taldean lanik ez egiteagatik, nora goazen ez jakiteagatik, alegia.

Nafarroako bazterkeriaren aurkako Borrokaren Plana Ebaluatzeari buruz denbora gutxi barru argitaratuko den

<sup>2</sup> jgallego@corazonistas.com

txostenean, ondorioen atalean, hain zuzen, Nafarroan dagoen erakundeen, sailen eta zerbitzuen arteko koordinazio urria azpimarratzen da.

Antzarak taldean hegan egitea bakarrik egitea baino komenigarriagoa dela egiaztatu den bezala, koordinazioa hezkuntza-eragile guztien artean baloratu behar dugu. Foro honetan aldarrikapen hori egin dut, baita horren inguruko neurriak hartzeko gonbitea egiten dizuet. Esfortzu hori aurrera eramateko denbora (kontzientzia hartzea) beharko da, baina ez dira behar hain kostu handiak. Koordinazioaren bidez energiak, aginte moralak eta eragin-garritasuna aurreztu ahal izango dira.

Lankidetzari eta koordinazioari dagokienez, funtsezkoa gogoratu behar dugu: gurasoen garrantzia. Hezkuntza gurasoek ematen dute eta ikastetxeek zeregin hori osatzen dute. Jokoa daude gurasoek ikastetxeetan duten lotura eta esku-hartzea. Egungo egunean, gaingitu gabeko arazoa da. Beraz, ezer egin aurretik gelditu eta pentsatu, estrategiak diseinatu eta gurasoen gaur egungo giroa exijentziaren eta kexaren inguruan mugitzen bada ere, horien ordeko esku-hartzea eta lankidetzaz ezarri beharko dira.

Zernahi gisaz, hezkuntzan dugun elkarbizitzaren gaira hurbildu nahi dut, hau da, elkarbizitza zehatzera, diziplina gisa izendatzen dena. Denbora luzean hitz mada-rikatua izan da, baina desadostasunak edukiari begira agertzen ziren. Hitz hori aberastu eta aldatu beharrean, gure hitzaldietatik ezabatzen dugu, eta, orain, alderantzizko aldaketa egin behar dugu.

Diziplinari buruz luze hitz egin daiteke, maila guztietan, eta, horretarako, beharrezkoak dira adostasuna nahiz konpromisoa. Kontzeptu horrek gatazkak sortzen ditu, eta gure esku-hartzea benetakoa izan beharko da. Epealdi eta elkarriketa horretan, diziplina berri ere definitu behar da, baina izaera konstruktibo eta positiboarekin, ikastetxean gizarteratzeko ikaskuntza jasoz, eta, ondorioz, harreman guztiak dimentsio guztietara hedatuta: berdinekin, helduekin, gauzekin, espazioan eta denboran, bai eta nork bere buruarekin.

Diziplinaren aintzatespen positiboa eta hezitzailea abiapuntu hartuta, hurrengo pausua estrategiak eta baliabideak diseinatzea da. Hona hemen ikastetxean aplikatzen ditugunak eta nire aburuz erabilgarriak diren bestelako hausnarketak:

- Gaur egungo Barruko Araubidearen Erregelamenduak (BAE) txiroak dira eta zigor-izaera dute. Eskubideen eta betebeharren arteko lotura lausoa izateaz gain, ia ez da operatiboa. Beraz, nire iritziz, ikastetxe bakoitzak elkarbizitzari buruzko estrategia batzuk landu eta adostu behar ditu, zigorrak, harremanak eta hartu nahi den hezkuntza-estiloa barnean hartzen dituen eredu operatiboa eta estrategikoa definituz. Kasu horretan, araua aplikatzeaz gain, giza harrera eta sentimendua ere onartu egingo dira. Taldean egitea oso aberasgarria da, edo, hori da behintzat Centro Puente erakundearen lan egiten duten taldeak baieztatatu duena.
- Estrategien barruan, gatazka modu positiboan baloratu behar da. Hezkuntza-esparruan dena aukera bat izan daiteke.
- Era berean, bitartekotza- eta itun-mekanismoak kontuan hartu eta definitu egin behar dira.
  1. Azkenik, ikastetxeko harremanen eredu definitzeko unean bi arazo adierazi behar dira:
  2. Agintaritza, bereziki, agintaritza moralak, nola landu, handitu eta mugatzen (boterearekin nahastu gabe) den jakin behar da. Hori dela medio, irakasleen agintaritza usurpatzen duten botereak eta irakasleak agintaritzarik gabe uzteko eskuordetze-mekanismoak berrikusi behar dira.

Adingabeen erantzukizuna (erantzukizun handia dute), dela elkarbizitza zaintzean dela diziplinari ez duten ekintzak egitean.

Goian esan dudana bezala, hori guztia egiteko denbora behar da: hausnarketa pertsonala, prestakuntza pertsonala eta taldekoa, klaustroak, jardunaldiak, goiko eta beheko estamentuen hausnarketak, gurasoekin egindako bilerak, ikastetxeko aholkuak, tutoretzak. Jadanik egin dira ikasi ditzakegun esperientziak.

Beste era batera esanda: hezkuntzan soberan daude legeak, erregelamenduak, eraldaketak eta kontrarreformak. Horren aurrean mimoak, animua, espiritua, zentzua eta esku-hartze afektiboa behar dira. Zehatzago esanda: hezkuntza beste modu batera eman nahi badugu, beste modu batera bizi behar gara, hain zuzen ere, antzarren bitzitza egin behar da, antzarren adimena erabilita.

## Ikasgela

### LANA BURLATAKO PROFESIONAL SAREAN HAUR ETA NERABEEI TRATU ONA EMATEA SUSTATZEKO

**Marisa Etxeberria**

**Burlatako Profesional Sarearen izenean.**

**35 profesional inguru gara** Burlatan haur eta nerabeen arreta zerbitzuan lan egiten dugunak: udaltzaingoa, psikologoak, Oinarriko Gizarte Zerbitzuko hezitzaileak eta gizarte langileak, Emakumearen Arretarako Zerbitzua, pediatriak eta Osasun Etxeko gizarte langilea, bestelako gizarte langileak, psikologoak, Osasun Mentaleko Zentroko Psikiatrak, Hautzaindegiko hezitzaileak, Ludotekako monitorea eta udalerriko Haur, Lehen eta Bigarren Hezkuntzako 8 Zentro Publiko eta Pribatuetakoa orientatzaileak.

Abian daramatzagun **bost urteetan 80 kasu inguru aztertu ditugu** 50 familiatan gutxi gorabehera. Kasuen agiritegi bat eraikitzen ari da, eta balorazioa egiteko



Marisa Etxeberria

protokoloak erabilteak horien gaineko datuak eratzeko erraztuko du.

**Prestakuntza bateratuko jarduerak egiten ditugu** adin txiki-koei familiaren baitan ematen zaien tratu txararen gainean, horien garrantziaren inguruan eta identifikatu, eskuz aldatu, ebaluatu eta mota horretako arazoetan egin

barreko lan bateratua planifikatzearen gainean. Modu berean kasuak ikuskatzeko, konfidentzialtasuna eta ara-

zo bioetikoak konpontzeko, profesionalen derrigortasun legalak ezagutzeko,... jarduerak egiten ditugu.

Hasiera batean batu gintuena familiaren baitako haurrenganako tratu txarren kasuko lana izan bazen ere, **sarea existitzeak bestelako bortizkeria motak jorratzera animatu gaitu, esate baterako bullying kasuen azterketa egitera**, batzuetan eskolaren eremutik haratago joaten delako. Urte honetako maiatzean prestakuntza-laneko 2 saio egin genituen tratu txarren modu horren gainean Lourdes Escribanorekin. Lehenengo bileran fenomenoak identifikatu genuen eta sareko edozein zerbitzuko nola ezagutu zezakeen ikasi. Bigarren saioan berriz, biktimei eta erasotzaileei, eta horien familiei helarazi beharreko mezuak ikusi genituen, eta horrekin batera zerbitzu ezberdinetatik erasotzaile, biktima eta ikusleekin garatu beharreko hezkuntza, euste, ikuskapen eta terapia jarduerak garatzeko jarraibideak ere aztertu genituen.

Bullyingaren arazoa modu bateratuan aztertzeak arazoaren identifikazio komuna egitea ahalbidetu zigun, eta profesionalak eta parte hartzaileak dituzten ikuspegi ezberdinak antzemateko aukera ere eman zigun. Batzuek "delitu" gisa ikusten dute (gazte ez-egozgarriekin eginkoak badira ere), poliziaren edo biktimen familien ikuspegia kasu, eta beste batzuek berriz elkarbizitza arazo gisa, eskolaren edo gizarte zerbitzuen ikuspuntua azken hori. Guztioi adi egoteko beharra azpimarratu zigun guztiok harrapatzen gaituen fenomeno honen aurrean, eta arazoa ez dela garrantzia gutxikotzat jo behar adierazi (nahiz eta alarmatik ere ez den jardun behar). Biktimek bizi duten sufrimenduak jabetu arazi gintuen, eta horrekin batera ikusle eta erasotzaileen gainean horrek duen eraginaren berri eman. Teknikoki ikusi genuen, garrantzitsua dela maila profesional ezberdinetan mezu ezberdinak ez ematea, esku-hartze komuneko protokoloarekin lan egitea beharrezkoa dela, eta horrek gure lana osatzeko aukera ematen duela.

Sarearen erronka berriak kasuen ikuskapen jarduerak egitera zuzentzen dira, eta modu berean zerbitzuen arteko proiektuetan lorturiko baliabide profesionalak aprobetxatzen. Horien artean udalerriko guraso eskola edo ama eta haur txikien artean lotura afektibo ziurra ezartzeko taldeak egongo lirateke.

## IKASTETXEETAN DAGOEN BERDINEN ARTEKO BITARTEKOTZA

**M<sup>a</sup> Jesús Barberren**

**Eskutik, Iruñako . "Plaza de la Cruz" BHiko zuzendaria**

Funtsezkoa da taldeko elkarbizitzaren giro positiboaren modu kontzientean eraikitzea hezkuntza-arloko helburuak lortzeko, baina hori plangintza eta programazio didaktikotako lanetan behar bezala jasotzen ez bada, ikasgeletan diziplinarik gabeko eta konpondu gabeko gatazkak sor daitezke.



M<sup>a</sup> Jesús Barber

Irakasleen ekintza oinarri-oinarrian komunikazio-ekintza da, pertsonen arteko elkarreaginak, bai afektiboak bai emoziozkoak barnean hartuz. Mesedegarria gerta daiteke horren eraginari buruzko gogoeta egin eta hori ikasgela praktikan jartzea, instrukzioaren eragingarritasunari dagokionez, bai eta ikasleek gaur egungo gizartearen elkarrekin bizitzen jakiteko oinarritzko trebetasunak ikasteari dagokionez ere.

Horrenbestez, gizarte-giro positiboa eta integratzailea eraiki eta horri eusten bazaio, ikaskuntzan aurrerapauso emango da eta gizarteak ikastetxei (gizarte txikia den aldetik) elkarbizitzarako eta gizarte-kohesiorako balioren hezkuntza sustatzeko baliagarria izango da.

Hori dela medio, urte guzti hauetan elkarbizitzari begira garatzen ari garen programa zehatzen helburua helburu osagarri bikoitza da:

- Ikasle guztiak ikaskuntzaren edukiaren inguruan, ikastetxe osoan eta ikasgeletan irakaskuntza-ekintza ahalbidetu eta bultzatzeko beharrezkoa den elkarbizitza-giroa eratu eta horri eutsi nahi zaio.
- Gizarte anitzean sortzen diren errokei aurre egiteko elkarrekin bizitzen ikasi nahi da, harreman pertsonalak, komunikazio konstruktiboa, eta hezkuntza-erkidegoa osatzen duten pertsona guztien aintzatespena eta errespetua zaindu nahi da.
- Horretarako, ikastetxeko estamentu guztiak taldean lan egiteaz gain, ikasleek hezkuntza emateko dugun zereginean haur lortu nahi da.
- Ikasleak egiten ari garen ekintzetan pixkanaka-pixkanaka parte hartzea, ikastetxeko elkarbizitzaren hobekuntza-prozesuko protagonistak izan daitezten.

2002-2003 ikasturtean, Tutoretza Ekintzaren Koordinazio Sailak **modu esperimentalean DBHn Bitartekotza Taldea sartzea** erabaki zuen, ikasleekin elkarbizitzeko.

Jarduketan hasieran prestakuntza-tailerra antolatu zen, eta kasu horretan, borondatezko gonbidapena egin zitzaion DBHko 2, 3 eta 4. mailako ikasle ordezkariei eta ordezkariordeari. Hogei ikasleek parte hartu zuten, eta bertan gatazkari eta bere osagaiei buruzko prestakuntza jaso zuten, hala nola, horri aurre egiteko estiloei buruz, komunikazio eragingarria izateko trebetasunei buruz, bitartekotzari buruz...Ikasleek modu positiboan baloratu zuten egindako jarduerak. Horrez gain, bertan ikasitakoa modu harrigarrian, argi eta garbi eta modu interesgarrian nabarmendu zuten, batez ere, ikaskideen harremanetan aplikatuz.

2003-2004 ikasturteko ikasleen laguntzarekin, ekintza ezberdinak garatu genituen: **prestakuntza sendotu, aldizkako bileren egutegia ezarri, zentroan hori zabaldu eta bitartekotza-jarduketara formalak eta informalak egin**. Bestalde, bitartekotza-kopurua urria zen eta ikasleek bestelako jarduerak eskatzen zituzten.

2004-2005 ikasturtean hasierako programaren esparruak hedatzea proposatu genuen, gure ikastetxean, pixkanaka-pixkanaka, **elkarbizitzaren inguruko gatazkak errespetuaren eta elkarriketaren esparruan taldeko lanaren bidez konpondu eta prebenitzeko lanerako hezkuntza-kultura finantzatzeko xedearekin**. Horretarako, komenigarria da



Gurutze Plazako BHIko ikasleak

hezkuntza-erkidegoa eratzen duten kolektibo ezberdinek parte hartzea, elkarbizitza eta gizarte-kohesioa lortzeko.

Ikasleen taldean –**Bitartekotza-taldea**–, gure ustez interesgarria da eginkizun-zerrenda hedatzea:

- Taldea zein bitartekotza egiteko eskatu eta horiek egitea.
- Gatazkak prebenitzeko proposamenak egitea, ikastetxeko organo eskudunei zuzenduta.
- Funtzionamenduari buruzko hedapen- eta informazio-materialak egitea.
- Taldearen prestakuntza hobetzeko prozesuaren alde egitea.
- Taldea jolastokietan egotea bitartekotza erabiltzera bultzatzeko.
- Talde gatazkatsuen kasuan, tutoreekin eta/edo irakasleekin lankidetzan jardutea jarduketa-plana ezartzeko.
- Bitartekotzaren funtzionamenduari buruzko ebaluazio-plana egin eta garatzea.
- Bitartekotza eskatzen duten kideei babesa eta laguntza ematea.

2005-2006 ikasturtean, elkarbizitza hobetzeko esparruaren barruan, eskolako irakaskuntza- eta ikaskuntza-prozesuak behar bezala garatzeko beharrezkoa den errespetu- eta erantzukizun-klima eratu eta hori eustera zuzendutako **aurreneurrisiko ekintzak** nabarmentzen dira.

Deialdia DBHko ikasle guztiengana hedatu dugu. Tutoretzen bidez Bitartekotza taldean parte hartzeko deialdia egin zen. Erantzuna esanguratsua izan zen: gutxi gora-behera DBHko ikasleen %10ek parte hartu zuen tailerretan eta taldeko kide izateko konpromisoa sinatu zuen.

Prestakuntza-tailerrean, gai teorikoez gain, taldeak osotasunean institutuko elkarbizitzari buruzko gogoeta egin zuen, batez ere, hurrengo galderei erantzuna emanez:

1. Elkarbizitza egokiaren kalterako ikastetxean gertatu diren egoerak.
2. Kasu horietan elkarbizitza egokia eratu eta horri eusteko egin dezakeguna.
3. Elkarbizitza ikasgelan eta jolastokietan hobetzeko iradokizunak eta ideiak.

Taldeak elkarbizitzaren diagnostiko zehatza egin zuen, ikasleen ikuspuntutik aztertutakoa, harremanei lotutako arazoak zehaztu zituen eta horiek konpontzeko ideia garrantzitsuak eman zituen. Horrez gain, bere balorazioak kontuan hartzen hasi ziren eta behin harremanak hobetzen zeudela baieztatuta, ikastetxearekin zuen lotura areagotu zen eta kideen aurrean beste eginkizun batzuk ere bere gain hartu zituen, elkarbizitza hobetu eta errazteko xedearekin.

Ikasturtearen azken ebaluazioan, Bitartekotza Taldeak beste balorazio batzuen artean esandakoaren arabera, bere lana nabaria izan zen eta ikastetxeko elkarbizitza hobetu egin zen. Gainera, hurrengo urteetan ikasleek parte hartzeko borondatezko gonbidapenari eutsiko ziotela azpimarratu zuen, bai eta prestakuntza- eta jarraipen-saioak hedatzekoari ere. Balorazio positibo hori kontuan hartuta, ildo horretan lan egitea eta eskatutako eskariaren behar bezala erantzuteko animatzen gaitu.

Beraz, ikasleek pixkanaka-pixkanaka parte hartuko dute, eta gatazka zehatzak elkarriketaren eta adostasunaren bidez konponduko dira. Horrela, gure hezkuntza-helburuak lortzeko beharrezkoak diren diziplina eta errespetuak eratu eta horiei eusteko lanean murgilduta gaude

## ELKARBIZITZARAKO, ERRESPETURAKO, BITARTEKOTZA: TRESNA, BALIABIDEA, AHALMENA

**Kiran Bhatti**

**Biurdana ikastetxeko bitartekaria**

Kanpotik begiratu zaila da jakitea bitartekotzaren benetako esanahi zabala, bere eragina eta berarekin dakarren guztia; egia esan ni orain hasi naiz ulertzen eta jabetzen, bitartekotzaren kontu honetan bost urte emanda.



*Kiran Bhatti*

Ikastetxean lehenengo aldiz bitarteko taldea sortzeko ideia

orientatzailearena izan zen. Hasieran proba moduan baina ilusioz, deialdia DBH 2. mailatik gorako kurtso guztietako ikasle batzuei gorputz hezkuntza irakasleen bitartez egin zitzaigun. Segidan bilera batean elkartu ginen interesatutako ikasle eta irakaslez osatutako talde heterogeneoa, iniziatiba berri honetan parte hartzeko asmoz. Hasieran, ni behintzat nahiko galduta ibili nintzen, guretzat aurretik sekula entzun gabekoa zen bitartekotzarena eta artean ni ere nahiko gaztea nintzen oraindik. Baina kuriositatez ez bazen ere prestakuntza egiteko prest agertu ginen. Hasiera horrelakoa izan zen, orain taldea gurtuz zabala da, asko bidean geratu dira baina

jarraitzen dugunok urtero-urtero gehiago ikasten dugu, esentzia geroz eta gehiago ulertzen goaz, eta bere garrantzia eta erabilgarritasunaz jabetzen.

Prestakuntza guretzat ez da klase teoriko bat, elkarbizitzan igarotako hiru egunetan egindako gai desberdinen inguruko hausnarketa baizik. Hau da, hiritik kanpo goaz, aterpe batera, eta asteburu batean zehar gai eta ahalmen desberdinak tratatzen ditugu, bitartekotzarako baliagarri zaizkigunak eta baita bizitzaren beste aspektuetan laguntzen dizkigutenak: bitartekoen prestakuntzatik hasita, gatazkaren elementuak, aurre egiteko estiloak eta prozeduretatik pasata, autoestimua, komunikazioa, boluntarioria eta jazarpenaren (bullying). Asteburu horretan harremanak estutu eta lantzen ditugu, sentimenduak elkarbanatu, egindako ariketa, jokoen bidez, elkarrekin igarotako aisia eta elkarbizitzaren egunerokotasunean, izan ere egin beharreko lanak (garbiketa, janaria prestatu, bildu...) denon artean egiten ditugu. Modu horretan bai talde moduan eta baita indibidualki ere indartzen gara.

Hasiera batean prestakuntza orientatzaileak zuzentzen zuten, berak azaltzen zigun gaia eta denok lantzen genuen. Poliki-poliki ordea geroz eta gehiago gure esku zuten du, orain urte gehiago daramazkigunok bakoitzak bere erara, hasiberrienei dakiguna eskaintzen diegu, guk azaltzen ditugu gaiak eta behar izatekotan orientatzailea hor dago laguntzeko. Taldeari begira gure helburuetako bat zera da: bere burua elikatzen duen taldea izan nahi genuke, elkarri irakatsi, denok denon esperientzietatik ikasi eta konpromezu eta gogoz funtzionatu, taldea arrera eramateko.

Ikastetxean modu desberdinetan eman dugu gure berri, klasez klase guk geuk azalduz eta talde osoa agertzen den eskuorriak ere badira, hala ere zaila da mingarriak diren gatazkak konpontzeko oraindik ere nahiko ezezaguna suertatzen den bitartekotzan konfidantza jartzea,



*Biurdana BHIko Tartekaritza taldea*





Biurdana BHLko Tartekaritzaren taldearen logotipoa

eta hori nabaritzen da. Horregatik, gure tresna ahalmen handiena bitartekotza informalean datza. Hau da, ikastetxean ez dugu bitartekotza formal askorik burutu baina dugun ahalmena oso baliagarria da edozein momentutan, lagunartean, etxean gurasoekin, irakasleekin... Nik neuk institutuan bitartekotza gutxi egin ditut, baina jendea ulertzeko, jarrerak aztertzeke, pertsona desberdinekin tratatzeko, egoera ezberdinetan nola jokatu jakiteko... ikuspegi zabala eta malgutasuna eman didate bitartekotzaren kontu honekin batera etorri zaizkidan esperientziek eta eskuratu dudak ahalmenak.

Hasi ginenetik eta gaur arte asko aldatu da taldea, ikasle eta irakasle asko ikastetxetik joan dira eta gehienak taldetik ere, berriak etorri dira, eta azkeneko bi urtetan prestakuntza Eunate ikastetxeko kideekin batera egin dugu. Eunate ere bitartekotzaren inizatiba martxan jarri zuten eta prestakuntza elkarbanatzea ideia ona iruditu zitzaigun, esperientzia aberasgarria izan zitekeela bai haientzat eta baita guretzat ere. Honen harira beste harremanak ere izan ditugu, Berriozarreko eskolako irakasleentzat hitzaldiak eman genituen iaz landutako gai desberdinen inguruan, aurten Nafarroako Gobernuaren Gaztedi Sailak antolatutako aktibitateetan Aisialdirako Monitorean kurtsua eman genuen, arrakastatsua, eta uda honetan unibertsitatean elkarbizitzaren inguruko mahainguru batean ere parte hartu dugu. Aipatzekoa da ikastetxeko Apymak eman digun laguntza.

Aurten gainera Calandako bitartekotza talde baten berri izan genuen, gurekin kontaktuan jarri ziren, eta taldearen bultzatzailea prestakuntza asteburuan gurekin izateko aukera eduki genuen. Bere eskutik beste bizipen asko etorri ziren, gizartearen, ikastetxearen gertatzen diren injustiziak berriro ere entzun ahal izan genituen. Hain singular eta puntualak diruditen gertakariak egunerokoak direla alegia, askok ikusi nahi ez arren, ezkutatu nahi izan arren.

Orain, bitartekotzarekin kontaktuan emandako bost urteren buruan, esan dezaket ez dela soilik tresna bat, prestakuntza niri bizi ikuspegi desberdina eman dit, pertsona moduan aberasteko aukera, gizarte honetan apreziatzen ez diren bizi baloreak kontuan hartzea. Nire eta beste esperientzietatik ikasi eta modu heldu batean eratu eta hezten lagundu dit. Bitartekotzarekin lotuta dauden baloreak denok izan beharko genituzke, gizarte hobe baten bila. Entzuten jakitea, hausnarketa, introspektzioa, lagungarri izatea... sekulako ekarria dira, niri pertsona izaten lagundu didate.

## "AVE MARÍA" IKASTETXE PUBLIKOA. IRUÑA. ESPERIENTZIA INKLUSIBOA. MEC 2005-06KO LEHENENGO SARI NAZIONALA

*Javier Morenoren*

**Eskutik, Iruñako "Ave María" ikastetxe publikoko zuzendaria**

Aldaketa sustatzen duen eskola, hori GUZTIENA izan dadin, eskola inklusiboa sortu da. Hona hemen, gaur egungo erronkei aurre egiteko puntuak:



Javier Moreno


1. Dibertsitateari etengabe aurre egiteko moduak bilatu behar dira, batez ere, guztiak zentroko kide izan daitezzen.
2. Irakasleen, familien, ikasleen eta irakasleak ez diren langileen parte-hartzea garatu behar da.
3. Eskolako dibertsitatea onartzeko modua aldatu behar da, zentroko kudeaketa- eta errutina-sistemak berrikusiz eta pixkanaka ikasgeletan eta ikastetxeetan eguneroko praktikak aldatuz.
4. Eskolaren eta inguruaren arteko harremanak sustatu behar dira: auzoa, herria, eta, orokorrean, gizartea.

Modu horretan jokatzen du "Ave María" ikastetxeak, 1916. urtean sortu eta Rochapea (Iruña) auzoan kokatzen denak, Hezkuntza Egitasmoa aurrera eramanez eta ikasleen prestakuntza osoa bilatzeko helburuarekin.

Zernahi gisaz, ez da landu ezagutzen ikaskuntza bakkirik, ezpada ikastetxearen xede diren helburu nagusi gisa ezarritako elkarbizitza eta balioen irakaskuntza ere barnean hartu dira. Aipatu hiru faktoreak bere praktika pedagogikoa burutzeko ardatza dira. Bestalde, harrera-prozesuetan, eskolan sartzean, elkarbizitzan, etab., ikastetxeak esku hartzeaz gain, auzoak, eta, orokorrean, gizarteak ere esku hartu behar dute, hau da, ideiak ekarri, igorri eta irakatsi ditzaketen guztiak. Gure IHPk ezarri duen bezala, ikastetxean gizartearekin izan beharreko koordinazio eta parte-hartze egokia sustatzen ditugu, ikastetxe-gizartearen arteko harremanak gure ikasle eta familien arteko integrazio zuzena eta elkarbizitza eragingarria bultzatzeko lagungarriak izan daitezzen.

Zalantzarik gabe, irakasleak ikastetxeko hezkuntza-prozesuaren zati garrantzitsua dira. Irakasleek, neurri handi batean, 80. hamarkadatik aurrera, zurgintza, elektrizitatea, baratzea eta antzeko programak eta tailerrak eskaintzen zituzten, eta ikastetxean puri-puritan egon den dibertsitatearekin lan egin dute. Gaur egun, beste herrietatik datozen ikasle berrien parte hartzea dugunez, ikastetxea nabarmendu duen hezkuntza-filosofia horri eutsita lan egiten jarraitu behar da: egitasmoen, programen eta eguneroko irakaskuntzaren bitartez gure ikasleentzat aukera-berdintasuna erdietsi behar da.

Gure egunotan, gure ikastetxean dagoen ikasleen arteko dibertsitatea agerian uzten da (20 naziotasun ezberdin), bizi dugun gizartearen lekuko.



**Jatorria:**

Espainia	93	Kuba	3
Ekuador	50	Dominikar Errepublika	3
Portugal	17	Brasil	3
Bulgaria	8	Suitza	1
Maroko	8	Argentina	1
Argelia	8	Bielorrusia	1
Kolonia	7	Txile	1
Errumania	6	Polonia	1
Peru	6	Paraguay	1
Ginea	4	Ghana	1

Ikasleen jatorria hain anitza dela kontuan hartuta, hori oso aberasgarria da taldearentzat eta beste kulturei nahiz kultura horietako kideei zor zaien errespetua areagotzen da.

Horregatik, irakasleek errealitate hori abiapuntu hartuta, zenbait **hezkuntza-plano** jorratu ditu aurretik aipatu eskola inklusiboaren eta elkarbizitzaren alde egiteko xedearekin :

**Plano PEDAGOGIKOA:** Hau nabarmenduko dugu:

1. Kultura arteko egitasmoak edo programak landu behar dira; horien bidez oinarritzko lau helburu lortuko dira ikasleei begira.
2. Ikasleen irakaskuntza-/ikaskuntza-prozesuan parte hartzen duten guztien koordinazioa.

har dira.

**FAMILIAKO plano:** Une oro, familiak euren parte-hartzearen bidez ikastetxean sartuta izatea nahi dugu, puntu hauen bidez:

2001/2002tik aurrera martxan jarritako Harrera Plana garatuz.

Tutoretza Planaren bidez, elkarriketa eta aldizkako bileren bidez; ikastetxea seme-alaben hezkuntzaren garapenera hurbildu eta parte-hartzailea izango da.

Elkarbizitza Planaren bidez, hezkuntza-erkidego osoak egin eta bere gain hartu duena.

Garapen pertsonalari laguntza emanez, batik bat, prestakuntza-hitzaldiak, irteerak eta jaiak eskainiz (ikastetxe-kultura arteko jai bezala); horien parte-hartzea oso garrantzitsua da.


Egitasmo ezberdinak; familien balioa beren beregi handitzen da.

**GIZARTE-plano:**

Zuzendaritza Taldeak, Orientatzaileak, Irakasleek, Gizarte Langileak eta Apymak, beste batzuen artean, integratzaile eta elkarbizitzarako erabiltzen duten Gizarte Programan, auzoko edo herriko beste gizarte-talde batzuen lankidetzan nabarmendu behar da: auzoko unitateak, eskolaz kanpoko jardueren auzoan laguntzeko kolektiboak, Ekeduk asoziazioa, ikastetxean ordezkari gehien

duen kulturetako tailer-egileekin eta monitoreekin batera, La Majarí asoziazioa, Anafe, Gurutze Gorria, Iruñako udalaren bitartekotza-taldea, kirol-kluba, Hirugarren adinekoen kluba, osasun-zentroa. Horiez gain, beste erakunde batzuk aipa daitezke: udala, Hezkuntza Saila, legebiltzarrak, NUP...

Laburbilduz, integratzailea eta elkarbizitza esparru ez-



## Ikasgela



Sari Nazionala ematea Madrilan

berdinetatik jorratu behar dira: pedagogikoa, familiakoa, gizartekoa... guztion ikasleak gizartean bizi daitezen. Lan integratzaile eta elkarbizitza egokia izateko lan hori Hezkuntza Egitasmoaren barruan jaso da, hezkuntzaren inguruan dugun eginkizunaren gida.

Hala ere, hori guztia osagabe gera daiteke gogoeta edo azterketa zehatza egiten ez bada; horregatik, irakaskuntza-ikaskuntzaren prozesuaren barruko ebaluazioa egin behar da, bide zuzenetik goazen jakiteko edo beharrezkoak diren hobekuntza-alderdiak sartzea. Azken batean, kalitatezko irakaskuntza eskaini nahi da, eta elkarbizitza egokiarekin batera, ikastetxean hezkuntza-er-kidego osoa asebeteta geratuko da.

alderdik funtzionatzen duen eta zeinek ez duen funtzionatzen. Gure ustez, hurrengo ikasturterako neurri zuzentzaileak eta hobekuntza-puntuak ezagutzen alderdian, gizarte-balioen eta -trebetasunen prestakuntzan nahiz elkarbizitzan aplikatu beharko dira.

Hori da, hain zuzen, "Ave María" ikastetxe publikoan ilusioz beteta eta esfortzu handiarekin egin dugun lana. Horrez gain, gure ezaugarriak nahiz egitasmo-programak eta gizarteari ateak ireki dizkiogula aintzat hartuta, banakakoari nahiz ikastetxeak gizartearen aurrean lortu duen irudiarri begira emaitza ikusgarriak ematen ari den ildo pedagogiko hori aurrera eramateko gogo bizigarriarekin lanean murgilduta gaude.

### Nola egingo dugu barruko ebaluazioa?:

**a.** Ziklo bakoitzaren amaieran, hain zuzen ere, hizkuntza eta matematika alorretan, probak egingo dira.

**b.** Gure 8 hezkuntza-egitasmoetan ebaluazio-eskalak burutuko dira, eta ikasleei inkestak eta soziogramak egingo zaizkie.

**c.** Irakasleei, familiei eta ikasleei elkarbizitza buruzko inkestak egingo zaizkie.

Hori guztia aintzat hartuta, argi eta garbi dakigu zein

## Prentsa albisteak

- "Teresatarretatik jakituriaren Europako gunetara". Daniel Velasco Vitriain, 17 urtekoa, kontinenteko 7 unibertsitate enblematiko ezagutzeko aukeratu dute. Diario de Navarra, 2006ko maiatzaren 21a.
- "Ikastetxeek 250 sakelako telefono kendu dizkiete ikasleei aurtengo ikasturtean". Diario de Navarra, 2006ko maiatzaren 24a.
- "Erdi irakasle, erdi guraso". Diario de Noticias, 2006ko ekainaren 6a.
- "Aurrejubilazioa eskatzen duten irakasleentzako prima hazi egin da". Diario de Navarra, 2006ko ekainaren 6a.
- "Iruña eta Tuterako lau institutu publikok ISO 9001 kalitate-ziurtagiria lortu dute". Tuterako Benjamin, Julio Caro Baroja, Valle del Ebro eta San Juan Donibane dira. Diario de Noticias, 2006ko ekainaren 23a.
- "Berrikuntzak ikasgeletan". Nafarroako toki desberdinetako hamabost ikastetxe saritu dituzte irakurketa sustatu eta proiektu berritzaileak diseinatzeagatik. Diario de Navarra, 2006ko ekainaren 29a.

## Bibliografia

- "Cuadernos de Pedagogía" 358. zk. Hileko gaia "Genero indarkeria". 2006ko ekaina.
- "Una sociedad laica, una escuela laica". Juan Jorganes. Aula aldizkaria, 152. zk., 2006ko ekaina.
- "La Evaluación o el camino de la ética" Pmadres aldizkaria, 86. eta 87. zenbakiak.
- "Convivencia en los centros". Cuadernos de Pedagogía, 359. zk, 2006ko uztaila-abuztua.
- "El clima escolar: otros puntos de vista". OGE aldizkaria, 4. zk., 2006ko uztaila-abuztua.
- "Tutoría entre iguales: algunas prácticas". Aula aldizkaria, 153-154. zkk., 2006ko uztaila-abuztua.

# Araudiaren aipamena

Maiatzaren 3ko 2/2006 LO ezartzeko egutegia. Ekainaren 30eko 806/2006 ED. (BOE 167 zk. uztailaren 14koa)

Ezartzeko egutegiaren eskema							
	Urte honetako abendua baino lehen		Ikasturteak				
	2006	2007	2006/2007	2007/2008	2008/2009	2009/2010	2010/2011
<b>1. haur zikloa</b>	Hezkuntzako edukiak eta ikastetxeen betebeherrak			Aurreratzeko aukera	Ezari		
<b>2. haur zikloa</b>	Gutxieneko ikaskuntzak				Ezari		
<b>Lehen H.</b>	Gutxieneko ikaskuntzak			1. eta 2. mailan ezari	3. eta 4. mailan ezari	5. eta 6. mailan ezari	
					Ebaluazio diagnostikoa	Ikaskuntzaren txostena ikaslearentzat	
<b>Derrigorrezko Bigarren Hezkuntza</b>	Gutxieneko ikaskuntzak			1. eta 3. mailan ezari	2. eta 4. mailan ezari		
			831/03 EDren arabera ebaluazioa	Ebal. Berria eta promazioa	Diagnostikoaren ebaluazioa		
			831/03 831/03 EDren arabera titulazioa	Titulaziorako betebeharrak			
<b>Curriculum aniztasuna</b>	1/90 LOren arabera ezarri programak						
<b>Hasierako kualifikazio profesionala</b>	Lanbide Hastapeneko Programak			Aurreratzeko aukera	Ezari		
<b>Batxilergoa</b>	Gutxieneko ikaskuntzak		Unibertsitatean sartzeko probaren diseinua	Aurrera sarrera proba ezari			Sarrera proba
					1. mailan ezari	2. mailan ezari	
<b>Lanbide Heziketa</b>	Ordenazioa		Aurreko sistema akademikoa	Ezari			
				Sarbide berria			
<b>Musika eta Dantza. Oinarrizkoa</b>			Aurreratzeko aukera.	Ezari			
<b>Musika eta dantza profesionala</b>			Aurreratzeko aukera	Ezari 1, 2, 3 eta 4	Ezari 5 eta 6		
<b>Diseinua eta plastika</b>				Ezari GM	Ezari GS		
<b>Irak. Artis. Goi kons.</b>	07ko apirilera arte konstituzioa						
<b>Hizkuntzak irakatsi</b>	Gutxieneko irakatsi		Behin – behineko aurrerapena, maila ertaina.	Oinarrizko eta erdiko mailan ezari	Goi mailan ezari		
<b>Kirol irakaskuntzak</b>	Ordenazio orokorra						
	Jarraibide berriak, tituluak						
	Oinarrizko curriculumak						
	Gutxieneko eskakizunak						
<b>Helduen hezkuntza</b>			DBHko titulurako sarbide probak 135/02 EDren arabera		DBHko titulurako sarbide probak		
					Batxilergo titulurako sarbide probak		
<b>IGZ</b>	Probak antolatzen jarraitu ahal izango da, araudi berria ezari arte						